

ERIEN

SAKRAMENDUAK

SACRA CONGREGATIO PRO CULTU DIVINO

Prot. n. 1814/74

HISPANIAE

DIOECESIVM LINGVAE VASCONICAE

Instante Excellentissimo Domino Iosepho !Tendez Asensio, Archiepiscopo Pampilonensi, Administratore Apostolico Tudelensi, literis huic Sacrae Congregationi a Summo Pontifice PAULO VI tributarium, interpretatio-nem vasconicam Ordinis Unctionis infirmorum eorumque pastoralis curae, prout in adiecto prostat exemplari, ad interim perlibenter probamus seu confirmamus.

In textu autem imprimendo mentio fiat de confirmatione ab Apostolica Sede concessa. Eiusdem insuper textus impressi duo exemplaria ad hanc Sacram Congregationem transmittantur.

Contrariis quibuscumque libet minime obstantibus.

Ex aedibus Sacrae Congregationis pro Cultu Divino, die 11 novembris 1974.

(Iacobus R. Card. Knox)
Praefectus

Imprimatur

Baionan, 13-2-78

J. Hiriart-Urruty, v.g.

NUN ZER

Erien kominioea	5
Erien Oliodurako sakramendua	11
Oliodura mezan edo el izan elgarrekin	22
Azken Kominioea (De Viatico)	23
Penitentzia, Oliodura, Azken Komi. batean	26
Oliodura sub condicione	28
Konfirmazioea	29
Agoniako otoitzak	30
Oliodurako irakurgaiak	35
Azken Kominioneko mezako irakurgaiak	76

ERIEK KOMINIOEA

Hastea

Bakea etxe huni eta hemen bizi diren guzietari.
edo
Jaunaren bakea zurekin (zurekin).

Ur benedikatua (nahi bada)

Ur hau izan bedi zure bataioaren orroitzarri,
eta bere Pasione ta Pizteaz
salbatu gaituen Kristoren seinale

Kofesioa, behar bada, bertela :

Haurrideak, aitortzagun gure bekatuak, el izkizun hau
ospatzeko gai izan gaitzen

Aitortzen diot Jainko guziz ahaltsuari,
eta zuerri ere bai, nere haurrideri,
bekatu egin dutala, gogoeta, hitz eta egitez,
eta egin beharrak ez eginez,
bai bekatore naiz.

Horrengatik eskatzen diotet
Andreana Maria beti Birjinari,
Aingeru ta Saindu guzietari,
eta zuerri ere bai, nere haurrideri,
otoitz egin dezozuen nere alde
Jainko gure Jaunari

Edo

Aita, bekatu egin dut zeruaren eta zure kontra ; ez dut gehiago zure seme
izenik merezi. Urrikal zaite, Jauna, naizen bekatoreaz

Edo

Ene Jainkoa, handizki damu dut zu ofentsaturik, zeren guziz ona zaren eta
zeren bekatua hastio duzun Barka zadazu Jesu Kristoren merezimenduen
gatik . Hartzen dut xede zin bat, zure graziarekin batean, zu gehiago ez
ofentsatzeko eta penitentzia egiteko .

Edo

Ikus p.13

Urrikal dakigula Jainko guziz ahaltsua,
eta gure bekatuak barkaturik,
ereman gaitzala betiko bizitzera 0 Amen.

Gero erran ditake

Jesus Jauna, gure indar eta sustengua,
zuhaur heldu zira, amodioz betea,
eri den gure haurride hunen ganat
Emozu indar eta bozkario
zure Hitzaren eta Gorputz Sainduaren bidez,
zu errezebi zaitzan
gaitz guzien sendatzailea,
gure biziaren zaintzale ta salbatzailea bezala
Errege bizi bartzirao 0...

Irakurgaia

Egun hartan, Jesusek erran zuen : " Ni naiz ogi bizia, zerutik
jautsia Ogi huntarik jaten duena biziko da betiere. Eta nik emanen dutan ogia,
nere haragia da, munduaren bizitzerako."

Edo

Jesusek erraiten dauku : " Nere haragia jaten eta nere odola jaten duenak badu
betiereko bizia eta nik piztuko dut azken egunean. Alabainan, nere haragia
egiazko janaria da, eta
nere odola egiazko edaria . (hemen geldi ditake)
Nere haragia jaten duena eta nere odola edaten, ni baitan dago, eta ni haren
baitan . Bizia den Aitak ni igorri nauen bezala, eta ni Aitaz bizi naizen bezala,
halaber, ni jaten nauena nitaz biziko da. Hau da zerutik jautsi ogia : ez zuen
aitek jan zutena bezalakoa, hil baitziren ; ogi hau jaten duena biziko da betiere
."

Edo

Jesusek erraiten dauku : " Ni naiz Bidea, Egia eta Bizia nehor ez doa
Aitaren ganat, ene bidez baizik ."

Edo

Jesusek erraiten dauku " Maite nauenak begiratuko du nere errana, eta nere
Aitak maitatuko du ; haren ganat etorriko gira, eta haren baitan egingen gure
egoitza ."

Edo

Jesusek erraiten dauku : " Bakea uzten dautzuet, nere bakea dautzuet emaiten,
eta munduak ez bezala dautzuet nik
emaiten Ez bedi zuen bihotza ez kexa, ez lotsa . "

Edo

Jesusek erraiten dauku " Zaudezte nitan, eta ni zuetan . Nola aihenak ez
baitezake fruiturik ekar berez bere, mahats ondoan egoiten ez bada, halaber
zuek ere, ez bazirezte nitan egoiten . "

Edo

Jesusek erraiten dauku " Ni naiz mahats-ondoa, zuek aihe-nak,, Nitan dagonak
eta ni hartan, harek ekartzen du fruitu ainitz, ezen ni gobe ez dezakezue deus
egin."

Edo

" Ogi hou jaten, eta edari hou edaten duzuen aldi oroz, Jaunaren heriotzea
aipatzen duzue, bera etorri arte . "

Edo

Eta guk ezagutzen dugu Jainkoak guretzat duen amodioa, bai eta sinesten .
Amodio da Jainkoa, amodioan dagona, Jainkoaren baitan dago, eta Jainkbo
haren baitan

Irakurgaiaren ondotik

Orai, elgarrekin otoitz egin diezogun Jainkoari ,
Jesu Kristo gure Jaunak erakutsi daukun bezala :

Gure Aita ...

Ostia erakutsiz

Huna hemen Jainkoaren Bildotsa,
huna munduko bekatua kentzen duena
zoriontsuak hunen mahainerat deituak .

Jauna, ni ez naiz on, zu nere etxean sartzeko, bainan errazu hitz bat
eta sendatuko naiz

Kristoren Gorputza (Kristoren Odola)

Amen

Gero :

Egin dezagun otoitz
Jauna, Aita guziz saildu,
Jainko guzialdun betierekoa,
federekin eskatzen dautzugu :
gure haurride hunek orai hartu duen
Jesu Kristo gure Jaunaren G orputz saildua (Odola
izan dakiola gorputz-arimen betiko sendabide<,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Edo

Jainko Jauna, gizonaren salbatzea
zure Semearen bazko-mixterioan bete duzu :
egizu, Kristoren heriotzea eta piztea
sakramendu seinalez aitortzen ditugunek
zure salbamendua beti nasaiago ardiets dezagun,
Zure Seme

Edo

Jainko Jauna, ogi eta kalitza beretik hartzea
eman daukuzu. Egizu, Kristo baitan bat eginik bizi gaitezen, eta
fruitu ainitz ekar dezagun munduaren salbamendurako . J.K.g.J.b.

Edo

Janari saildu hunek azkarturik,
eskerrak emaiten daukitzugu, Jauna,
eta zure urrikalmenduari deika gaude :
Izpiritu Sailduak eman dezotela
goiko indarra hartu duteneri
zuzentasunean irautea
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Benedikatzea

Jesu Kristo gure Jauna izan bekizu zaintzaile.

Amen

Aintzinetik gidari eta ondolik begirale

Amen

Begi onez ikus zaitzala, begira eta benedikata.

Amen

Eta zuek, hemen zireztenak,

benedika zaitzatela Jainko guzieldunak,
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak
Amen

Benedika ditake ere , deus erran gabe, Sakramendu sainduarekin

ELIZKIZUN LABURRAGOA

Hala nola, ospitale edo eritegi batean erabil ditakena Elizan, edo lehen
gelan,hastean erran ditake

O afari saindua, Kristo dugu janari,
haren Pasionearen orroitgarri
arima graziaz betetzen zaiku,
eta geroko biziaren ageria emaiten

Eri bakotxari

Huna hemen Jainkoaren Bildotsa,
huna munduko bekatua kentzen duena :
zoriontsuak hunen mahainerat deituak

Jauna, ni ez naiz on, zu nere etxean sartzeko
bainan errazu hitz bat, eta sendatuko naiz

Kristoren Gorputza
Amen

Azken otoitza azken gelan erran ditake, edo elizan

ERIEI OLIODURA

Behar litake sakramendua aintzinetik prestatu eriarekin eta haren etxekoekin, bereziki irakurgaiak hautatuz, eta elizkizun guzia esplikatuz, erranez zertako den sakramendu hori eta zer duen egiten.

Aintzinetik egin ere eriaien kofesioa, edo bederen elizkizuna hastean.

Eria ez bada ohatua, elizan ere har dezake sakramendu hau. Eri bat baino gehiago balinbadira, bakotxari egin behar zaio eskuen hedatzea eta oliodura otoitz bereziarekin. Gainera - teko otoitzak aldiz berdinak dira, pluralean haatik.

Hastean

Bakea etxe huni eta hemen bizi diren guzietan,
edo

Jaunaren bakea zurekin (zuekin)
edo Mezako agur bat

Ur benedikatua nahi bada

Ur hau izan bedi zure bataioaren orroitzarri ,
eta bere Pasioneaz ta Pizteaz
salbatu gaituen Kristoren seinale

Gero, dei hau edo hunen gisakoa

Haurrideak, Ebanjelioan ikusten ditugu eriak Jesusen
ganat joaiten, osasun-eske . Jesu Kristo gure Jauna ,
guretzat hoinbertze neke jasan duena, gurekin dago ,
haren izenean bilduak girenaz geroz. Berak erraiten
dauku , Jakobe apostoluaren bidez

" Zuetarik norbeit eri bada, dei egin diezotela El izako zaharreri. Otoitz
eginen dute haren gainera, Jaunaren izenean oliodura emanaz . Fedeak
egin-arazten duen otoitz horrek eria salbatuko du : Jaunak sendatuko du ,
eta bekaturik balinbadu, barkatuko zaio ."

Ezar dezagun eri dugun haurride hau Jainkoaren esku-etan, Kristoren graziari eta
indarrari esker, arindu eta senda dadin

(dei horren orde erran ditake otoitz bat)

Jainko Jauna,

Jakobe apostoluaren bidez erran duzu :

Zuetarik norbait eri bada, dei egin diezotela
Elizako zaharreri, edo apezari
Otoitz eginen Bute haren gainera,
Jaunaren izenean oliodura emanaz
Fedeak egin-arazten duen otoitz horrek
eria salbatuko du : Jaunak sendatuko du,
eta bekaturik balinbadu, barkatuko zaio
Zuri otoitzez gaude,Jauna
zaude zure izenean bilduak gaudenekin,
eta zure urrikalmendu handian begira zazu
gure haurride eri hau (eta hemen etzanik daudenak
Emozute sofritzen duten guziera
zu ganik igurikatzen duten laguntza .
Errege baitzira gizaldi eta gizaldietan.

Edo

Begira zatzu, Jauna, gure haurridea,
gurekin zuri otoitzez daudena,
eta nahigabetan diren guziak.
Emozute argi, zer nahi duzun heien ganik ikusteko,
eta indar, ikusi rik betetzeko . J. K . J. b.

Edo

Jainko Jauna,
bizi guzien iturri eta helburu zirena,
zure idurirat egin duzu gizona,
zeruan bezala lurrean ere malta zaitzan
Zuk bakarrik dezazketzu ikus eta juja
zure haurren maitasuna eta fedea

Gu hemen izaitea izan bekio gure haurrideari
zure amodioaren seinale,
eta gure otoitza berearen oihartzun
Oliodurako sakramendu hunek berri dezala haren baitan
Kristoren baitako fedea, betiereko biziaren esperantza,
eta behinere itzaliko ez den amodioa
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Kofesioa Edo :

Haurrideak, aitor ditzagun gure bekatuak, elizkizun hau ospatzeko gai izan gaitezen

Aitortzen diot

Edo :

Urrikal Jauna

Bekatu egin baitugu

Ager guri, Jauna, zure bihotz ona

Eta salba gaitzazu

Edo :

Jesus Jauna, zure Bazko-mixterioaren bidez

salbatu gaitutzuna, urrikal, Jauna .

Jesus Jauna, zure Pasioneko miragarriak gure

artean beti berritzen ditutzuna, Kristo,urrikal.

Jesus Jauna, zure Gorputza janari emanaz,

3azko-oparian bat egiten gaitutzuna, u. J.

Urrikal dakigula Jainko guziz ahaltsua,

eta gure bekatuak barkaturik

ereman gaitzala betiko bizitzerat .

Irakurgaia

Hemen dena har ditake ,edo p.35-tik aintzina direnetarik bat

Gero hitzaldi labur bat egin ditake

Haurrideak, entzun dezagun Ebanjelio saindua jondoni

Matiuren liburutik

Egun hartan, Jesus Kafarnaumerat sartzearekin, ehuntari bat

hurbildu zitzaion erranez

"Jauna, nere mutila etxean dago etzana,

ezindua, oinaze gorritan ."

Jesusek erran zion " Banoako sendatzerat ."

Bainan, ehuntariak ihardetsi zion :

" Jauna, ez naiz on, zu nere etxean sartzeko,

bainan errazu bakarrik hitz bat,

eta sendatuko zait mutila

Alabainan, nik ere, bertzen meneko naizelarik,

baditut sol dadoak ene azpiko ,

eta bati erraiten diot : "Habil", eta badoa ,
bertzeari : "Ator", eta heldu da,
nere mutilari : "Hou egizak", eta egiten du
Hori aditzearekin, Jesus miretsia zagon,
eta ondotik zitueneri erran zioten :
"Egiaz derautzuet : nehoi, Izraelen,
ez diot holako, federik aurkitu . "
Gero erran zion ehuntariari
" Zoaz, gerta bekizu, sinetsi duzun bezala . "

Litania

Orai edo oliodura egin-eta, egin ditake, hemen den bezala, edo laburrago, edo
ere p.18

Haurrideak, fede handirekin eta umilki otoitz egin diezogun Jaunari,
gure bourride hunentzat

Urrikaldurik zatozkio, Jaune, eta emozu indar
oliadura sailduaren bidez

Otoi, entzun gaitzazu

Gaitz guzietarik begira zazu. Otoi.....

Hemengo eri guzien neke ta oinazeak arint ditzazu.

Erien zerbitzariari emozute zure laguntza.

Eri heu bekatutik eta tentaldi guzietarik

atera zazu, Jauna

Zure izenean eskuak ezartzen diozkagun huni

emozu bizia eta salbamendua. Otoi, ...

Eskuak ezartzea eriaren buruaren gainean, deus erran gabe.

Eskerren emaita Olio sailduaz

Benedikatua zu, Aita guzizaldun gure Jainkoa
gu gatik eta gu salbatzeko
zure Semea mundurat igorri duzu

R/ Eskerrak Jainkoari

Benedikatua zu, Jesu Kristo gure Jainko,
Aitaren Seme bakarra

gizonen arterat jautsi zira,
eta gure gaitzak sendatu ditutzu

R/ Eskerrak Jainkoari.

Benedikatua zu, Izpiritu Saindu, gure Jainkoa
zuk laguntzen gaitutzu eta gidatzen,
eta gure gorputzaren ahulezia
zure indarrez beti sendotzen

R/ Eskerrak Jainkoari

Jainko guziz ona,
zure zerbitzari hunek orai fedean hartuko du
Izpiritu Sainduaren grazia
Oliodura hunek eman dezola laguntza bere oinazetan, eta indar bere
ahulezian.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez . Amen.

Oliodura saindua

Eriaren kopetan eta eskuetan, behin bakarrik erranez :

OLIODURA SAINDU HUNEN BIDEZ
ETA BERE URRIKALMENDU HANDIARI ESKER
LAGUNT ZAITZALA JAUNAK
IZPIRITU SAINDUAREN GRAZIAZ.

R/ Amen

BEKATUTIK ATERA-TA
SALBA ZAITZAN ETA PIXKORTU.

R/ Amen

Oliodura ondoko otoitza

Egin dezagun otoitz.
Gure Salbatzaile ziren Jauna,
senda Izpiritu Sainduaren graziaz eri hunen gaitzak,
goxa hunen zauriak, barka bekatuak,
ken oinaze guziak
Zure bihotz onean emozu
gorputz arimetako osasun betea,
zure urrikalmenduaren laguntzak sendaturik,

bere lanetarat itzul dadin
Errege baitzira gizaldi eta gizaldietan .
Amen

Edo :

Jesu Kristo gure Jauna,
gizonak salbatzeko eta eriak sendatzeko,
gurea bezalako izaitea hartu duzu :
Begira, otoi, bere gorputz-arimen osasuna
zu ganik igurikatzen duen eri huni
Olio sainduaz gantzutu duguna,
zure ahalak indar-berri dezala,
zure laguntzak arint,
senda dadin eta gaitza garrait dezan
(eta zure Pasionean zurekin bat egin duzunaz geroz,
igurika dezan bere oinazeen fruitua
Errege baitzira gizaldi eta gizaldietan
Amen .

Edo P. 19-20

Elizkizunaren bururatzea

Orai, elgarrekin otoitz egin diezogun Jainkoari,
Jesu Kristo gure Jaunak erakutsi daukun bezala

GURE AITA ...

Eriak kominiatu behar badu, oral emaiten zaio, gorago den otoitzarekin :
" Ostia erakutsiz" eta ondoko otoitza.

Benedizionea

Benedika zaitzala Jainko Aitak

R/ Amen

Senda zaitzala Jainkoaren Semeak

R/ Amen

Argi zaitzala Izpiritu Sainduak

R/ Amen

Jainkoak begira dezala zure gorputza eta salba zure arima

R/ Amen

Argi dezala zure bihotza eta ereman zaitzala betiko bizitzerat

R/ Amen

Eta zuek guziak, hemen zireztenak,
benedika zaitzatela Jainko guzialdunak,
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak

R/ Amen

EDO

Jesu Kristo gure Jauna izan bekizu zaintzaile
Amen

Aintzinetik gidari eta ondotik begirale
Amen

Begi onez ikus zaitzala, begira eta benedika.
Amen

Eta zuek, hemen zireztenak,
benedika zaitzatela Jainko guzialdunak,
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak
Amen .

Bertze litania bat oliodura aintzinean

1

Gure gaitz eta oinazeak
zure gain hartu ditutzu eta ereman, urrikal, Jauna.

Bihotz handiz jendea urrikari izan duzu,
ongia eginez eta eriak sendatuz iragan zira gure artean,
Kristo urrikal

Zure apostolueri, erien gainean eskuak ezartzeko
manatu diozute, urrikal, Jauna

2

Eri den gure haurridearentzat, eta hunen zerbitzuko
diren guzientzat, otoitz egin diezogun Jaunari
R / Otoi, entzun gaitzazu

Eri hau begi onez ikus dezazun
Hunen gorputza indar-berri dezazun ...
Hunen herstura arint dezazun...
Bekatu eta tentaldi guzietarik atera dezazun ...
Eri guzieri zure graziaren laguntza eman diezozuten, ...

Heien zerbitzuko lanean ari direnak
zure laguntzaz sokorri ditzazun ...
Zure izenean eskuak gainean ezarriko deieguneri bizia ta salbamendua
eman dezaiezun ...

Olioaren benedikatzea(egin beharra delarik)

Egin dezagun otoitz

Laguntza guzien emaile ziren Jainko gure Aita
zure Semearen bidez sendatu ditutzu
erien gaitz eta oinazeak
Entzun, otoi, gure galdea eta igor zerutik
zure Izpiritu Saindua olio hunen gainera :
zuri esker olio-ondoaren indarrak eman dauku
gure gorputzaren indar-berritzeko
Zure benedizione sailduari esker,
olio hunek arint ditzala oliodura hartuko dutenen
gorputz, arima ta izpiritua ,
eta ken oinaze eta atsegabe guziak .
Olio saildu hau izan bedi, Jaune,
zure grazia emaitako bide,
Jesu Kristo gure Jaunaren izenean,
zurekin errege baita gizaldi eta gizaldietan

Edo

Benedikatua zu, Arta guzizaldun gure Jainkoa,
gu gatik eta gu salbatzeko
zure Sernea mundurat igorri duzu

R/ Eskerrak Jainkoari

Benedikatua zu, Jesu Kristo gure Jainko,
Aitaren Seme bakarra gizonen arterat jautsi zira,
eta gure gaitzak sendatu ditutzu

R/ Eskerrak Jainkoari

Benedikatua zu, Izpiritu Saindua, gure Jainkoa
zuk laguntzen gaitutzu eta gidatzen,
eta gure gorputzaren ahulezia
zure indarrez beti sendotzen .

R/ Eskerrak Jainkoari

Zato, Jaun guziz ona,

eta zure fededunen oinazeak sendatzeko
moldatu duzun olio hau
saindu egizu zure benedizioneaz,
federekin otoitz eginik , oliodura hartuko dutenak
beren gaitz eta min guzietarik senda ditezten
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Oliodura ondoko otoitz zonbait

1 - Xahar-xahar batentzat

Begi onez ikus, Jauna, zure zerbitzari hau
xahartasunaren ahuleziaz eri dago,
eta bere gorputz -arimen osasunerako
zure grazia eskatzen dautzu oliodura sainduaren bidez
Zure Izpituaren beteak indarturik,
iraun dezala fedean sendo, esperantzan gogor,
guzieri pazientzia erakutsiz,
bai eta zure maitasunaren poza agertuz
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez .

2 - Lanjer handian den batentzat

G uzien Erosle ziren Jainkoa,
gure oinazeak ereman ditutzu zure Pasionean,
eta zure gain hartu gure ahulezia guziak
Eri dugun haurride hunentzat otoitz egiten dautzugu,
zeronek salbatu duzuna
salbamenduaren esperantzan azkar dezazun,
eta gorputz-arimetan lagunt
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

3 - Azken kominioea egin duen batentzat

Aita guziz urrikaltsua,
eta nigarretan daudenen Kotsolatzaila,
ikus-azu begi onez zu baitan esperantza duen
I... zure zerbitzaria :
oinazeak lehertzen duena,
oliodura sainduaren graziak arindu dezala,
eta zure Semearen G orputz-Odolek indarturik,
har dezala betiko bizirat
eremanen duen bideko janaria

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

4 - Agonian den batentzat

Aita urrikaltsua,
gogo oneko guziak ezagutzen ditutzu,
bekatuak beti barkatzen,
eta eskatzen dautzunari
ez diozu behinere barkamendua ukatzen •
Urrikal zakizkio hil zorian dagon
I ... zure zerbitzari huni :
Olio sainduz gantzuturik,
eta gure otoitz kartsuak lagundurik,
arindua izan dadila bere gorputz-arimetan,
eta bekatuaren barkamendua ardietsirik,
zure maitasunaren dohainez indartua,
herioa garraitu—ta betiko biziaren ateak
zabaldu dauzkigun Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan .

Oliodura Meza denboran

Meza denboran ere eman ditake Oliodura saildua, bai elizan, bai eriazen etxean apezpikutez baimenarekin.

Meza jauntzi xuritan, Aldareko Liburuan p. 607 Erientzat ;

salbu Abendo, Garizuma eta Bazkoko igandetan, lehen graduak besta buruetan, Haustez eta Aste sailduan : egun horietan har eguneko meza.

Irakurgaiak har ditazke liburu huntan emana den lerroan. Eien meza eman ez ditaken egunetan, irakurgai bat bakarrik har ditake lerro hortan, Eguberri, Trufanian, Ortzegun, Ortzirale, Bazko gau eta Bazko egunean, Salbatorez, Mendekostez, Besta berriz, Mariaren Zeruratzetan eta Omia Sailduz eguneko irakurgaiak bakarrik hartu behar dira.

Oliodura emaiten Ebanjelioaren eta omiaren ondok,
Has Litaniarekin, eta burura Oliodura ondoko otoitzarekin.

Gero meza segitzen da, beti bezala

Eri bat baino gehiago balira, berdina egiten da.

Oliodura elizan mezarik gabe

Eri andana batentzat

Aintzinetik ontsa prestatu behar dira hortarat bai eriak, bai elizkizun hortan parte hartuko duten guztiak .

Aintzinetik ere kofesa eriak, ahal bada

Gorago emanak diren otoitzak baliatzen dira

Kantu batekin has, eta ongi etorria egin erieri

Gero bekatuen urrikia, eta irakurgaiak : bat baino gehiago hautatzea ongi litake, salmo ta lelo bat ezarritik artean.

Litania, eskuen hedatzea, oliodura.

Lehenaren gainean oliodurako otoitza gora erran eta,
denek aditzeko gisan, gero kanta ditake .

Fededunen otoitz bat molda ditake, eta Gure Aita kanta.

AZKEN KOMINIONEA

(De Viatico)

Mezarik gabe delarik

Hastean

Bakea etxe huni eta hemen bizi diren guzieri

Edo

Jaunaren bakea zurekin (zuekin)

Edo

Ur benedikatua

Ur hau izan bedi zure bataioaren orroitgarri

eta bere Pasioniaz eta Pizteaz

salbatu gaituen Kristoren seinale

Deia

Haurride maiteak, Jesu Kristo gure Jaunak, mundu huntarik Aitaren
gana iragan baino lehen, bere G orputz-Odolen sakramendua utzi
dauku. Beraz, bizi huntarik Aitaren gana iragaiteko orduan, haren G
orputz-Odolak ditugu biderako indar eta lagun, eta heietan dugu
piztearen segurtamena G ure haurride hunekin bat girela, egin
dezagun hunentzat otoitz

Bekatuen urrikia

Ikus gorago mezan bezala

Indulientzia osoa

Aita sainduak eman eskuaren bilez,

nik emaiten dautzut indulientzia osoa

eta bekatu guzien barkamendua

Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.

R / Amen

Edo

G izon guzien Erospeneko mixterio saindueri esker,

Jainko guzialdunak,

oraiko eta geroko zorrak kendurik,

zabal daizula zeruko atea

eta ereman zaitzala betiko zorionerat

R / Amen

Irakurgaia

Ikus erien kominionekoak

Bataioko agintzen berritzea

Sinesten duzu Jainko Aita
botere guzla duena baitan,
zeruaren eta lurraren kreatzailean ?

R/ Sinesten dut

Sinesten duzu Jesu Kristo, Karen Seme bakar,
gure Jauna baitan : Maria birjina ganik sortua,
pairatu eta ehortzia izan dena,
hiletarik piztua, Aitaren eskuinean jarria ?

R / Sinesten dut

Sinesten duzu Izpiritu saindua baitan,
Eliza katoliko sainduan, sainduen partaliertasunean,
bekatuen barkamenduan, haragiaren piztean,
betiereko bizian ?

R/ Sinesten dut .

Litania

Haurride maiteak, bihotz batez otoitz egin diezogun
Jesu Kristo gure Jaunari
Jesus Jauna, azkeneraino maite izan gaitutzu,
eta zure burua herioari eman diozu, guri bizia emaiteko,
G ure haurride hunentzat otoitz egiten dautzugu

R/ Otoi, entzun gaitzazu

Jesus Jauna, erran duzu : Nere gorputza jaten duenak
eta nere Odola edaten, badu betiko bizia
G ure haurride hunentzat otoitz egiten dautzugu

R/ Otoi, entzun gaitzazu

Jesus Jauna, zuk deitzen gaitutzu
oinazetik eta nigarrik, berexterik eta nahigaberik
ez den zeruko mahainerat

Gure haurride hunentzat otoitz egiten dautzugu Otoi, entzun gaitzazu

Kominioea

Ikus gorago, erien kominioean bezala: Gure Aita,
eta gaineratekoak

Kristoren Gorputza (Odola)

Amen .
Berak begira zaitzala eta betiko bizitzerat ereman .
Amen

Kominiatu-eta

Egin dezagun otoitz

Jainko Jauna,
zure Semea dugu Bidea, egia ta bizia
Begi onez ikus, otoi, I.... zure zerbitzaria,
eta zure hitza baitu bere esperantza,
egizu, zure Semearen Gorputz-Odolek indarturik,
bakean joan dadin zure Erreinurat
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Edo :

Jainko Jauna,
zutan sinesten dutenen betiereko salbamendua,
egizu, I.... zure zerbitzaria,
zeruko ogi ta arnoz indarturik,
beldurrik gabe hel dadin
argiaren eta biziaren Erreinurat
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Gero :

Benedika zaitzatela Jainko guzieldunak,
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak. Amen

Edo ere erien kominionekoak

PENITENTZIA , OLIODURA , AZKEN KOMINIONEA

batean emanak hiltzeko lanjer hurbilean denari

Hastean ikus P.5

Ur benedikatua ikus P. 5

Deia

Haurride maiteak, Jesus Jauna beti gurekin dago, bere sakramenduen graziaz beti gu azkartzen Jainkoaren gana itzultzen direneri, apezen bidez emaiten diote barkamendua, eriak oliodura sailduaz indar-berritzen ditu, eta hura noiz etorriko den zain daudeneri, bere Gorputz saildua emaiten diote bideko janari, izan dezaten indar betiko biziaren esperantza-rako

Gure haurride hunek hiru sakramendu horiek eskatzen ditu lagunt dezagun gure maitasunaz eta otoitzez .

Kofesioa edo ikus p. 5 , 13

Indulgentzia osoa ikus p. 23

Bataioko agintzen berritzea ikus p. 24

Litania

Haurride hunentzat otoitz egin dezogun oren huntan bere sakramenduez indar-berritzen duen Jaunari .

Gure haurride huntan Jainkoak ikus dezan bere Seme-aren aurpegia, Pasionean jasan zuelarik, egin dezagun otoitz
Otoi, entzun gaitzazu .

Bere maitasunean azkar dezan eta begira, egin dezagun otoitz

Bere bakea eta indarra eman diezoon, egin dezagun...

Konfirmazionea, behar balitz, orai eman

ikus p.29

Olioaren benedikatzea (egin behar balinbada)

Benedika, Jauna, zuk egina den olio hau, bai eta oliodura hartuko duen eri hau .

Edo

ikus p.18-19

Oliodura ikus p. 15

Oliodura saildu hunen bidez
eta bere urrikalmendu handiari esker
lagunt zaitzala Jaunak Izpiritu Sailduaren graziaz
R/ Amen
Bekatutik atera-ta salba zaitzan eta pixkortu .
R/ Amen

Azken kominionea

Orai, elgarrekin otoitz egin diezogun Jainkoari, Jesu Kristo gure
Jaunak erakutsi daukun bezala :

Gure Aita ...

Ostia erakutsiz :

Huna hemen Jainkoaren bildotsa,
huna munduko bekatua kentzen duena :
zoriontsuak hunen mahainerat deituak

Jauna, ni ez naiz on zu nere etxean sartzeko, bainan errazu hitz
bat eta sendatuko naiz .

Kristoren Gorputza (Odola) Amen

Berak begira zaitzala eta betiko bizitzerat ereman. Amen .

Kominiatu-eta Ikus p. 25

Ez bada azken kominionea emaiten

P.26 den deiaren orde, hune bertze bat :

Haurride maiteak, Jesusek Jakobe apostoluaren bidez erraiten dauku
: " Zuetarik norbait eri bada, dei egin diezotela Elizako zaharrereri .
Otoitz eginen dute haren gainera, Jaunaren izenean oliodura emanaz
. Fedeak egin-arazten duen otoitz horrek eria salbatuko du : Jaunak
sendatuko du, eta bekaturik balinbadu ,
barkatuko zaio ."

Ezar dezagun eri dugun haurride hau Jainkoaren esku-etan, Kristoren
graziari eta indarrari esker, arindu eta senda dadin .

Oliodura egin-eta, erran ditake otoitz bat ikus p.16,19-20

Eria oraino bizi den duda delarik (sub condicione)

Gure fedearen otoitza igan bedi Jaunaren ganat,
I.... gure haurridearen alde,
urrikalmendu handiz etor dakion,
eta oliodura sailduaz indar eman diezoz .

Oliodura

Bizi bazira, oliodura saildu hunen bidez
eta bere urrikalmendu handiari esker
lagunt zaitzala Jaunak
Izpiritu Sailduaren graziaz

R/ Amen

Bekatutik atera-ta
salba zaitzan eta pixkortu

R/ Amen

Ondotik, otoitz bat erran ditake ikus p.16,19-20

KONFIRMAZIONEA

(Hiltzeko lanjerean den norbaitena)

Ahal bada, elizkizuna bere osoan egin behar da. Astirik ez balinbada, hunela eman ditake.

Apezak eskuak hedatzen ditu eriaren gainean, erranez :

Jainko guziahalduna,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,
zure zerbitzari hau
urez eta Izpiritu Sainduz bizi-berritu duzu,
eta bekatuak barkatu diozkatzu.
Jauna, igor-azu hunen gainera
Izpiritu Saindu Laguntzailea :
Emozu zuhurtzia eta adimendu izpiritua,
kontseilu eta indar izpiritua,
jakintza eta otoitz izpiritua,
eta bete-zazu zu-ganako beldurraren izpirituaz .
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez .

Amen

Gero, Krisma sailduarekin oliodura kopetan eginez :

I..... , har-zazu ezagutgarri hunen bidez
Izpiritu Saindua, Jainkoaren dohaina .

Hala beharrean, krisma sailduarekilako otoitza aski litake.

Ondotik erran ditazke Konfirmazioneko Ritualetik hartu otoitz zonbait hauturat.

AGONIAKO OTOITZAK

Otoitz hauk egiten dira agonian dena laguntzeko, herioaren beldurra garraitzen eta Kurutzean hil den Kristori jarrai-kitzen, heriotzea onhartuz zeruko biziaren eta piztearen es-perantzan.

Eriak ezagutza galdua badu ere, otoitz hauk lagunt ditzazkete han daudenak, heieri kuraie emanaz, eta konpreniaraziz girixtinoaren heriotzeak Bazko mixterioarekin duen lokarria. Hori erakuts ditake kurutzearen seinalea eginez eriaren kopetan, bataioan egin zitzaion bezala

Hemen diren otoitzetan hauta ditake beharren arabera .

Ahal bezenbatean, apez batek behar luke gidatu denen otoitza ; bainan laiko batek ere egin dezake, bixtan da. Apeza han izaiteak erakusten du girixtinoa Elizaren batasunean hiltzen dela .

Otoitz labur batzu

- Nork berexiko gaitu Kristoren amodiotik ?
- Hilik ala bizirik, Jaunarenak gira.
- Betiereko egoitza daukagu zeruetan.
- Betikotz Jaunarekin izanen gira.
- Jainkoa ikusiko dugu den bezala.
- Heriotik bizirat iraganak gira, anaiak maite ditugulakotz.
- Zu ganat daukat nere arima, Jainko Jauna.
- Jauna dut argi, Jauna salbamendu .
- Badut sineste : ikusiko dut zoin den ona
Bizi direnen lurrean, Jauna .
- Egarriz noa, nik Jainkoa noiz ikus ote.
- Ilunbez ala gaitz-erreketa joanik ere,
Nik ez beldurrik, hor baitzare .

- Zatozte, nere Aitaren benedikatuak, dio Jesus Jaunak, har zazue zuentzat apailatua dagon erreinua .
- Egiaz derautzut, egun enekin izanen zira parabisuan, dio Jesus Jaunak
- Ene Aitaren etxean toki asko bada, dio Jesus Jaunak.
- Jesus Jaunak erran du : Banoa zueri tokiaren egiterat, eta nerekin hartuko zaituztet.
- Nahi dut, hek ni naizen tokian nerekin egoitea, dio Jesus Jaunak.
- Semea baitan sinesten duenak badu betiereko bizia.
- Jauna, zure eskuetan emaiten dut ene izpiritua .
- Jesus Jauna, har-azu ene izpiritua.
- Maria saindua, otoitz egizu enetzat.
- San Josep, otoitz egizu enetzat .
- Jesus, Maria, Josep , lagunt nezazue.

Irakurgaiak

Huna hautu bat

Izai, 35, 3-4,6C-7.10 Job 19,23-27a

Salmoak : 22 ; 24, 1-11 ; 90 ; 113, 1-8 ; 114, 3-5 ; 120; 122

1Kor. 15,1-4 ; IJo.4,16 ; Apok. 21,1-5a.6-7

Mat, 25,1-13 ; Mark 15, 33-37 ; 16,1-8 ; Luk 22,39-46
23, 42-43 ; 24,1-8 ; Jrn, 6,37-40 ; 14,1-6.23.27

Erran ditazke Sainduen Litaniak

Edo Arrosorioa

Azken hatsa emaiterakoan , erran ditake hemen diren otoitzetarik bat edo bertze, hauturat.

Otoitzak

Atera zaiten mundu huntarik, kristaua,
egin zaituen Jainko guzieldunaren izenean,
gu gatik pasionea jasan zuen Jesu Kristo,
Jainko biziaren Semearen izenean,
zu ganat jautsi den Izpiritu Sainduaren izenean.
Gaur bakean izan zazu zure egoitza
eta Zion sailduan zure etxea ,
Jainkoaren Ama birjinarekin, san Josepekin,
aingeru eta saildu guziekin.

Haurride maitea, egin zaituen Jainko guzieldunaren
eskuetan uzten zaitut,
lurraren buztinaz moldatu zaituenaren ganat itzul zaitezen.
Bizi huntarik ateratzean,
etor bekizu biderat Maria birjina saildua,
aingeru ta saildu guziekin .
Libra zaitzala zuretzat gurutzefikatua izan den Kristo Jaunak,
Libra zaitzala zuretzat hil den Kristo Jaunak; .
Ezar zaitzala bere zeruan Kristok, Jainko biziaren Semeak ;
onhar zaitzala bere arden artean egiazko Artzain onak .
Barka dietzazula bekatu guziak,
eta ezar zaitzala bere hautetsien erdian,
zure Salbatzailea begiz begi ikus dezazun,
eta bozkariotan egon zaitezen Jainkoari begira,
gizaldi eta gizaldietan

Har zazu, Jauna, zure zerbitzaria zure urrikalmenduaren ganik igurikatzen duen
zeruan. R/ Amen

Atera zazu, Jauna, Noe uholdetik bezala. R/ Amen

Atera zazu, Jauna, Abraham Kaldearren artetik bezala....

Atera zazu, Jauna, Job bere oinazeetarik bezala....

Atera zazu, Jauna, Mois Faraonen eskuetarik bezala....

Atera zazu, Jauna, Daniel lehoin zilotik bezala

Atera zazu, Jauna, hiru gazteak su-labetik eta errege gaixtoaren eskuetarik
bezala

Atera zazu, Jauna, Zuzana salatzaile gezurtietarik bezala..
Atera zazu, Jauna, Dabid, Zaul erregearen eta Goliaten ganik
bezala

Atera zazu, Jauna, Petri eta Paulo giltzapetik bezala
Atera zazu, Jauna zure zerbitzaria, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez :
hunek guretzat ereman zuen herio latza, eta guri eman betiereko bizia.
R/ Amen

Jauna, zure eskuetan uzten dugu I.... zure zerbitzaria .
Jesus Jauna, munduaren Salbatzailea,
hunen gatik baitzira urrikalmenduz jautsi mundu huntarat,
ezarrazu, otoi, zure erreinuko zorionean.
Bekatu egin badu ere,
ez ditu ukatu Aita, Semea eta Izpiritu Saindua,
bainan izan du sineste, eta zintzoki eman dio goresmen,
gauza guzien Egilea den Jainkoari

(Erran edo kanta ditake Salve Regina)

Agur Maria, Ama guziz ezitia, gure bizia, gozo eta argia.
Entzun oihuka lurtiar dohakabeak ,
Entzun hats-goraka, auhenez ta minez,
nigar zelai huntakoak.
Ea, otoi, gure beiralea,
zure begi hoin urrikariz beteak beude guri beha.
Eta Jesus, xoragarri zure Seme hura,
guri lur huntarik lekora erakuts .
Oi zu, oi Ama, oi zoin zaren ezitia,
oi zoin goxo, zoin garbia, agur, Maria

Eriak azken hatsa eman duelarik :

Zatozkiote, Jaunaren saindu dohatsuak,
Zatozte laster hunen biderat, Aingeruak
Hunen arima har, ereman,
Eskain zazue Jaungoikoaren aintzinean
Besoak zabal, har zaitzala, deitu zaituen Kristo Jaunak,
Abrahamtarren loriarat joan zaitzatela Aingeruek .
Hunen arima
Betiereko zoriona, hil huni, otoi, eman, Jauna ;
Betiko argi zabalean zure argiak argi dezan .
Hunen arima

Egin dezagun otoitz

Jainko Jauna, zure eskuetan uzten dugu
zure zerbitzariaren arima,
mundu huntarik ateratu-ta, zuretzat eta zurekin bizi dadin.
Urrikaldurik, barkazkiotzu
gizonaren ahuleziaz egin dituen bekatuak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez
Amen

IRAKURGAIK

1

Erregeen lehen liburutik

19, 1-8

Egun heietan, Akabek erran zion Jezabeli Elik egin guzia, nota profeta guziak ezpataz hil zituen Orduan Jezabelek mandatarari bat igorri zion Eliri, hitz hauekin : " Jainkoek ni ganat ekar-araz ditzatela gaitz guziak, zuri egiten ez balin badautzut bihar tenore huntarako, zuk profeta heietarik bakotxari egin diozuna.

Eli izitu zen, eta jeiki-eta bere bizia salbatzeko , joan zen.

Berzaberat, Judako herrirat etorri zen,

eta han utzi zuen bere mutila .

Mortuan barna egun baten bidea egin ondoan, sasi baten itzalean jarri zen, eta herioa deitu zuen, erranez : " Jauna, badut aski orai, har-azu ene bizia, ez bainaiz ene arbasoak baino hobea."

Etzan-eta, sasi itzalpean lokartu zen.

Eta huna non Jaunaren aingeruak hunki zuen, erranez: "Jeiki zaite eta jan ."

Behatu zuen eta buru aldean ikusi harri goritu gainean erre opil bat, eta pitxer bat ur . Jan zuen, edan eta berriz etzan

Jaunaren aingeruak, berriz etorririk, hunki zuen eta erran zion : "

Jeiki zaite eta jan ; bertzela bidea luzeegi litake zuretzat ."

Eli jeiki zen, jan zuen eta edan . Gero , janari horrek azkarturik, bide egin zuen berrogoi egun eta berrogoi gauez, Horeb Jainkoaren mendiraino

2

Joben liburutik

3,1-3.11-17.20-23

Ahoa ideki zuen Jobek eta bere sort-eguna madarikatu. Mintzatzen hasi zen eta erran zuen :

" Gal bitez sortu nintzen eguna, eta gizon bat sortu da, erran zen gaua .

Zergatik ez nintzen hil amaren sabelean berean, zergatik ez hil sortu bezain laster ? Gordetzen den ilhorra bezala, ez nintake bizirik ; argia ikusi ez duen umea bezala nintake.

Zergatik izan dira bi belaun ni hartzeko, bi bular ni hazteko ?

Orai bakean etzana nintake, atsedenean lo , berentzat hil-hobi ederrak egiten dituzten errege eta lurreko handikiekin, eta urrez okituak diren errege-semekin, eta etxea zilarrez betea dutenekin.

Hor dira bururatzen gaixtoen zalapartak, hor dute atsedean
nekeetan akituek.

Zertako eman argia dohakabe bati, bizia, bihotza saminez betea duteneri,
herioari deika ari direneri, (herioak entzun gabe) , heriotzea ontasun gorde
bat baino gogo biziagoz bilatzen duteneri ? Bozkaria litazke, atseginez
bete, hobirat hel balite . Zertako bizia eman, bidea ikusten ez duen
gizonari, Jainkoak alde guzietarik hartua daukanari.

3

Joben liburutik

7 , 1-4.6-11

Jobek erran zuen : " Gizonaren bizia lurraren gainean ez ote da soldadogoa
? Haren egunak ez ote dira mutilgo egunak ? Mutila itzal gose den bezala,
eta langilea lan-sariaren beha bezala, halaxe nik hilabete latzak iragan
ditut, eta gau nigargarriak eman dauzkitet.

Etzaten naizenean hunela diot : "Noiz jeikiko ote naiz ?

Jeikitzen naizenean : " Noiz etorriko ote da gaua ? Goizetik gaueraino hor
nabil, batera ta bertzerat. Ehuleen tuta baino arinago joan dira nere
egunak, eta suntsitu dira, aria eskastu denean.

Orroit zaite, Jauna, nere bizia hats bat dela, eta nere begiek zorionik ez
dutela berriz ikusiko. Laster gizonaren begiak ez nau ikusiko ;
zure begiak ni gana, eta ni itzalia ordurako Hedoa ezeztatzen eta iragaiten
den bezala, hilen lekurat jausten dena ez da handik igaiten.

Ez da etxerat itzultzen, eta etxeak ez du gehiago ezagutzen. Ez dut
beraz ahoa hetsiko, nere bihotza hersturan da mintzatuko, nere arima
atsegabea auhenka ariko.

4

Joben liburutik

7 , 12-21

Egun heietan, Jobek erran zuen

" Itsasoa ote naiz ni ? ala itsas-mamua, nere kontra zaintzaleak ezartzeko
? Erraiten badut : "Oheak atsedean emanen daut, etzan-lekuak arinduko
auhena", orduan ametsez izitzen nauzu, ikuspenez lazten. Nahiago nuke
itoa izan, nahiago heriotzea, nere oina-zeak baino. Itzaltzen ari naiz, ez
naiz betiko biziko. Utz nezazu, deus ez baitira nere egunak. Zer da bada
gizona, hartaz hainbeste axola izaiteko, zure begiak haren gainean
ezartzeko ? Goiz guzietatik hari begira egoiteko, ordu oroz hura ikertzeko ?
Geldituko ote zira niri begiratzetik, nik tua iretsi artean bederen ?

Bekatu egin badut, zer egin dautzut, zuri, gizonaren zain zaudenari ?
Zergatik hartu nauzu etsai, zergatik nizaitzu nekegarri ? Ez ote
dezakezu nere hobena jasan, nere bekatua barka ? Alabainan, laster
errautsean etzanen naiz, nere bila ibiliko zira, eta ni itzalia
ordurako.

5

Joben liburutik

19, 23-27a

Egun heietan, Jobek erran zuen :
" Nahi nuke ene solasak izkiriatuak balira, baleude
liburu batean jarriak, burdinezko zizelaz berunean,
eta betirako harrian ezarriak.
Badakit, nik, nere Salbatzailea bizi dela, eta azkenean
xutituko dela hilen errautsaren gainean. Nere gorputza-
rekin xutik egonen naiz, eta gorputzeko begiez ikusiko
dut Jainkoa. Nihaurek ikusiko dut, eta ene begiek behatuko
diotelarik, ez du burua baztertuko .

6

Zuhurtziaren liburutik

9, 9-11.13-18

Jaun guziz ona, zurekin duzu Zuhurtzia : ezagutzen ditu zure egintzak,
han zen mundua egiten zinuelarik ; badaki zer den zure begien
atsegingarri, zer zure manamenduen arabera Igor-azu Zuhurtzia zeru
saindutik, eman zure aintzaren tronutik, lagunt nezan, nerekin neke har
dezan, jakin dezadan zer den zure gogoko. Zuhurtziak baititu denak
ezagutzen ta konprenitzen, Hark gidatuko nau zuhurki nere egintzetan,
eta bere aintzaz begiratuko.
Nork ezagut dezake Jainkoaren asmoa ? Nork asma Jaunak zer nahi
duen ? Gizon hilkorren asmoak labur dira, eta gure xedeak aldakor .
Gorputz ustelkor hau pisu baitzaio arimari, eta buztinezko etxola hunek
nekarazten baitu, jada buru-hauste ainitz derabilan gogoa . Lurrekoak
doidoia asmatzen ditugu, eta esku menekoak nekez aurkitzen : nork
ditu bada zerukoak ikertu ? Zure asmoa, nork ezagutuko zuen ,
zuhaurek ez bazindu eman Zuhurtzia, eta gain hortarik igorri zure
Izpiritu Saindua ?
Hola zuzendu ziren lurtiarren bideak, eta ikasi zuten
gizonek zuri atsegin zaitzuna. Eta zure Zuhurtziaz

salbatuak izan dira.

7

Izai profetaren liburutik

35 , 1-10

Alegeratuko dira desertua eta lur idorra, bozkariatuko eta loreztatuko larre zabala, landetako lorez estaliko, bozkarioz jauzi eta oihu eginez. Libango ospea emana izanen zaio, Karmel eta Zaroneko ederra ; ikusiko da Jaunaren ospea, gure Jainkoaren handitasuna. Eman indar, akituak diren eskuer, azkar erortzerat doatzin belaunak. Errozute bihotz beldurtieri : Gora bihotzak. Ez beldurrik izan, hara zuen Jainkoa : mendekioa heldu da da, Jaungoikoaren saria. Bera etorriko da, eta salbatuko zaituzte. Orduan idekiko dira itsuen begiak, eta elkorren beharriak zabalduko . Orduan mainguak, basa-ahuntzak bezala, jauzi egingen du, eta mutuaren mihiak irrintzin. Urak jaliko baitira mortuan, eta errekak eremuan. Lur errea aintzira egingen da, eta bazter egarritua, iturri. Basa-zakurraren egoitza eta ziloetan seskadiak eta ihidoiak izanen dira. Han bide zabal bat izanen da, "bide saildu" deitua : kutsaturik nehor ez da handik ibiliko, eta zentzugabeak ere ez dira han galduko. Han ez da lehoinik izanen, ez eta ere basabererik han aurkituko ; salbatuak bakarrik dira handik ibiliko. Jaunak salbatuak itzuliko dira . Zionerat etorriko dira bozkariozko irrintzinaka ; betiko zorionak beteko ditu heien aurpegiak, atsegina eta alegantzia berekin dituz-tela. Auhena eta nigarrek ihes egingen dute.

8

Izai profetaren liburutik

52,13-53,12

Ene zerbitzaria ongi aterako da, dio Jaunak, handi, ospetsu eta guziz gora izanen da. Asko gelditu ziren harriturik, hura ikusi-ta, hain zagon itxuragabetua , ez baitzuen iduri gizona zenik ere. Halaber erregeak, haren aintzinean, hitzik gabe geldituko dira, erran ez zitzaientena ikustean, eta entzun ez zutenari behatzean. Nork sinetsiko zuen entzun duguna ? Nori agertu zaio Jaunaren besoa ? Jainkoaren aintzinean handitu da, zuhamuxka bat iduri, erroa lur idorrean bezala. Etzuen deus itxurarik, ez edertasunik, ez ere haren begitarteak deus atsegingarriak. Mesprexatua, gizonetan azkena, oinaze gizona, gaitzaren berri dakiena, bazterrera emaiten den lepraduna

iduri ; eta gutietsi dugu, ezdeusendako utzi . Bizkitartean, gure nekeak zituen ekartzen, gure oinazeak bere gain hartzen. Eta guk ,gaztigatua bezala ginaukan, Jainkoak joa eta apaldua bezala. Hura aldiz, gure gaixtakerien gatik izan da aldean bertze zilatua, gure bekatuen gatik porrokatua . Bakea ekartzen daukun gaztigua haren gainerat erori da, haren zauriek gaituzte sendatzen. Guziak ardien pare errebelatuak ginen, zoin gure bidean. Bainan Jaunak haren gain ezarri ditu gu denen hobenak. Gaizki erabilia delarik, apaltzen da ahoa ideki gabe : hiltzerat deramaten bildotsa bezala, ile mozlearen ain-tzinean ixilik dagon ardia bezala, ez du ahorik idekitzen. Hartuta jujatu dute, eta suntsitu ; nork zuen axola haren geroaz ? Bizidunen lurretik kendua izan da, bere herriaren bekatuen gatik joa. Fedegaben artean ehortzi dute, haren hobia aberatsen hobien artean. Ez zuen ba behin ere gaizkirik egin , ez eta gezurrik ezpainetan erabili . Jaunak nahi izan du oinazetan lehertu . Bekatuaren ordaintzeko eskaintzen balinbadu bizia, ikusiko ditu bere ondokoak eta egun luzeak izanen . Jaunaren nahia beteko da haren bitartez . Bere oinazeen sari, ikusiko du argia eta izanen da dohatsu . Bere oinazeeri esker, Justuak, nere zerbitzariak, zuzen egingen ditu ainitz jende, bere gain hartuko heien bekatuak. Hargatik, beretzat emanen diozkat ainitz eta ainitz jende; boteredunak izanen dira haren irabazi, heriotzeari eman baitio bere burua, gaixtaginekin ekarria izan baita, ainitz eta ainitzen bekatua bere gain harturik, bekatorosen alde otoitzean ari zelarik.

9

Izai profetaren liburutik

61 , 1 -3a

Jaungoiko Jaunaren Izpiritua nere baitan ; Jaunak gantzutu nau ; Berri ona lehertueri otsegiteko igorri nau, bihotz minuak sustatzeko ; presoner eta giltzapetueri libertatearen berri emaiteko ; Jaunaren grazia-urtea eta gure Jainkoaren mendekio-eguna kridatzeko , nigarrez daudeneri bozkarioa emaiteko, Ziongo atsegabetueri, hautsaren orde korona bat emaiteko , nigar-jauntzi orde bozkario-olioa, eta etsimenduaren orde zorion-kantak.

10

Apostoluen Egintzetarik

3, 1-10

Egun heietan, Petri eta Joani goiti zoatzin Tenplorat, arratsaldeko otoitzerat. Hain xuxen, gizon bat ekartzen zuten, sortzetik maingua: egun

guziz ezartzen zuten Ate-ederra deitu Tenploko sartzean, amoinaren eskatzeko Tenplorat ari zireneri. Ikusirik Petri eta Joani Tenploan sartzerat zoatzila, galdegin zioten amoina. Orduan Petrik, bai eta Joanik, berari behatuz, erran zioten : "So egiguzu ." Gizona heieri beha zagon , zerbait ukanen zuelakoan . Bainan Petrik erran zion : " Ez dut nik, ez zilar ez urrerik, bainan dutan hau emaiten dautzut : Jesu Kristo Nazaretarraren izenean, xuti zaite eta kurri ."

Eta esku eskuina hartzen ziola, xutiarazi zuen : bat-batean azkartu zitzaizkon oinak eta aztalak . Jauzian xutitu zen, eta bazabilaran. Sartu zen heiekin Tenploan kurri eta jauzika, Jainkoa goستن zuela. Jende guziak ikusi zuen kurri eta Jainkoaren goستن . Ezagutzen zuten alabainan : amoina galdez Tenploko ate-ederrean jarria egoiten zen hura. Denak ezinago harrituak eta ikaratuak zauden hari gertatuaz .

11

Apostoluen Egintzetarik

3, 11-16

Egun heietan, sendatua izan zen maingua oraino Petri eta Joaniri lotua zagola, jendea harriturik lasterka heien gana bildu zen Zalomonen aterbean . Hori ikusi-ta, Petrik erran zion herriari : " Izraeldarrak, zergatik harritzen zirezte hortaz ? Zergatik zaudezte guri beha, guk ibil-arazi bagindu bezala, gure ahalez edo gure bihotz onez ? Abrahamen, Izaaken eta Jakoben Jainkoak, gure aiten Jainkoak goretsi du Jesus bere Semea, zuek Pilatusen eskuetararat eman duzuen eta ukatu , Pilatusek nahi zuelarik joaiterat utzi . Zuek Saindua eta Justua ukatu duzue, galdegin duzue gizon hiltzaile baten libratzea. Eta hilarazi duzue biziaren iturburua ; bainan Jainkoak piztu baitu hiletarik : hortaz gu lekuko gira. Eta haren baitako sinesteari esker, haren izenak sendatu du ikusten eta ezagutzen duzuen gizon hau ; haren ganik den sinesteak eman dio osasuna denon aintzinean .

12

Apostoluen Egintzetarik

4,8-12

Egun heietan, Petrik, Izpiritu Sainduaz beterik, erran zuen " Herriko buruzagi eta zaharrak, egun auzia balinbadugu gizon herbaildu bati egin ongiaz, nola sendatu den, jakizue denek, bai eta Izraelgo populu guziak: Nazaretako Jesu Kristoren izenean duzue hor gizon hori xutik eta sendo, eta ez bertze nehoren izenean Jesus hura da , zuek, etxegilek, baztertu

harria, izkin harri egina. Bertze nehoren baitan ez da salbamendurik, ez baita zerupean gizoneri eman bertze izenik,gu salbatu behar gaituenik .¹¹

13

Apostoluen Egintzetarik

13,32-39

Egun heietan, Paulok erran zuen : " Guk ekartzen dau-tzuegu berri ona ; gure aiteri hitzemaña, Jainkoak bete du, gu heien haurrentzat, Jesu Kristo gure Jauna piztuz, bigarren salmoan izkiriñtua den bezala: Nere semea zira, nik egun sortu zaitut.

Jainkoak hiletarik piztu duela, eta ez duela usteltzerik berriz ikusiko, huna zer zuen errana Liburu sainduan : Emanen dauzkitzut Dabiden gauza saindu ta zinezkoak. Horrengatik beste nonbait ere erraiten du: Ez diozu zure sainduari usteltzerik ikustera utziko ." Dabid bada, bere egunetan, Jainkoaren nahiaren zerbitzari izan-eta, hil zen, bere arbasoen aldean ezarri zuten, eta ikusi zuen usteltzea . Bainan Jainkoak piztu duenak ez du usteltzerik ikusi .

Jakizue beraz, anaiak, hari esker zaitzue predikatzen bekatuen barkamendua ; eta Moisen legean aurkitu ez duzuen zuzentasuna, Kristo baitan, bere betean, emana zaiote sinesten duten gizon guzietari.

Jondoni Paulok Erromanoeri

8, 14-17

Haurrideak, Jainkoaren Izpirituak derabiltzan guziak, hek dira Jainko seme. Alabainan, ez duzue ukan esklabo bihotza, oraino ere beldurrean ibiltzeko ; bainan seme-bihotza duzue ukana, oihu egin-arazten daukuna : "Abba", erran nahi baita : Aita. Izpiritua bera hor du lekuko gure bihotzak, Jainko-seme girela. Seme, eta beraz ondoko, Jainkoaren ondoko, Kristoren ondorekide harekin pairatzen balinbadugu, harekin ospean izaiteko.

15

Jondoni Paulok Erromanoeri

8 , 18 - 27

Haurrideak, daukat deus ez direla oraiko hersturak, gure baitan agertu beharra den ospearen aldean. Izaite guziak lehia kartsu batean, beha daude noiz agertuko diren Jainko-semeak. Ez deusaren meneko jarria

baita mundua, ez bere nahitara, baina meneratu duenaren nahiz . Halere badauka esperantza, bera ere aterako dela ustelduraren menetik, Jainko-semeen libertatearen osperat hel-tzeko . Bai, badakigu izate guziak orai arte auzen eta erdi-minetan direla. Ez hek bakarrik, baina gu ere, Izpiritu hartzen hasiak girenak, gure baitan auzenez gaude, noiz izanen giren Jainkoaren seme, noiz salbatuko den gure gorputza. Ezen salbatuak gira, baina esperantzaz : ikusten den esperantza, ez da esperantza ; alabainan, ikusten dena nola igurika ? ikusten ez dugunaren beha balinbagaude, iraupenekin gaude beha Izpiritu Saindua gure ahuleziaren lagun datorkigu, ez baitakigu zer eta nola eskatu . Izpiritu Sainduak berak eskatzen du gure alde, ezin erranezko auzenez . Bihotzak ikertzen dituen Jainkoak ezagutzen du zer den Izpirituaren gogoa eta badaki fededunen alde ari delarik, Jainkoaren asmoen arabera ari dela.

16

Jondoni Paulok Erromanoeri

8 , 31b...39

Haurrideak, Jainkoa gure alde balinbadugu, nor izanen da gure kontra ? Ez du errefusatu bere Semea, baina eman du osoki gu guzientzat : nolaz ez dauzkigu denak emanen harekin batean ? Nor jazarriko zaiote Jainkoak hautetsieri, Jainkoa denean saindutaile ? Nor ditaike kondenatzaile ? Jesu Kristo hil denaz geroz; eta gehiago dena, piztu da, Jainkoaren eskuinean dago, eta gure alde mintzo. Nork berexiko gaitu Kristoren amodiotik ? Nahigabeak? hersturak? jasaiten ditugunek? goseak? buluziak? lan-jerak ? ezpatak ? Ez, guzietan garraile ateratzen baigira, maitatu gaituen Hari esker. Badakit segur : ez herioak, ez biziak, ez aingeruek, ez nausiek, ez oraiko ez geroko deusek, ez izarrek, ez zeruek, ez itsas-leizek, ez eta bertze edozoin creaturek, deusek ez gaitu berexten ahalko Jesu Kristo gure Jaunaren baitan den Jainkoaren amodiotik.

17

Jondoni Paulok Korintiarri

1a : 1,18-25

Haurrideak, Kurutzearen hitza, galtzen direnentzat , erhokeria da ; guretzat aldiz, salbatuak girenentzat, Jainkoaren indar da . Izkiriatua baita : Zuhurren zuhurtzia itzaliko dut, eta adituen adimendua ezeztatuko. Non da zuhurra ? non da eskolatua ? non mundu huntako argiketaria ? Ez ote du Jainkoak munduaren zuhurtzia erho bilakarazi ? Munduak bere

zuhurtziarekin ez baitu Jainkoaren zuhurtziaren obren bidez Jainkoa ezagutu, Jainkoak nahi izan ditu fededunak salbatu, erhokeria bat den Ebanjelioaren predikatzeaz.

Juduak Mesiasen ezagutgarri eske dabilta. Grekak zuhurtzia-keta. Guk aldiz, Jesu Kristo kurutzefikatua erakusten dugu, Juduentzat eskandala, paganoentzat erhokeria . Jainkoak deitzen dituenentzat aldiz, Judu ala Greka, Kristo Jainkoaren indar eta zuhurtzia da . Jainkoaren erhokeria gizonak baino zuhurrago baita, eta Jainkoaren ahulezia, gizonak baino azkarrago.

18

Jondoni Paulok Korintiarri

12,12-22.24b-27

Haurrideak, nola bat baita gorputza asko menbro dituelarik, eta gorputzeko menbro guziek, ainitz izanik ere, gorputz bat baitira, berdin da Kristo. Guziak, Juduak ala Grekak, esklaboak ala libroak, Izpiritu berean bataiatuak izan gira, gorputz bat izaiteko . Eta guziek Izpiritu Saindu beretik edan dugu. Gorputza ez da menbro bat, bainan ainitz menbro. Zangoak erran baleza : " Ez bainaiz eskua, ni ez naiz gorputzekoa, halere gorputzekoa litake ." Beharriak erran baleza : " Ez bainaiz begia, ni ez naiz gorputzekoa", halere gorputzekoa litake. Gorputz guzia begi balitz, non litake aditzea ? Dena beharri balitz, non litake senditzea ? Bainan Jainkoak ezarri ditu menbroak, eta heietarik bakotxa gorputzean, nahi zuen bezala. Denak menbro bat balira non litake gorputza ? Bainan ainitz menbro badira, eta halere gorputz bat. Begiak ez dezoke eskuari erran : ez dut zure beharrik; ez eta buruak oineri ez dut zuen beharrik. Gehiago dena, ahulenak iduri duten menbroak, beharrezkoak dira. Jainkoak gorputza egin du, errespeturik handiena emanaz berenaz ez zuten menbroeri, gorputzean ez dadin berex-kuntzarik izan, bainan menbro guziek elgarrez arta izan dezaten. Menbro batek min duenean, bertze guziek min dute harekin ; menbro bat goretsia denean, bozkario guziek harekin. Zuek, Kristoren gorputza zirezte, eta zuetarik bakotxa haren menbro.

19

Jondoni Paulok Korintiarri

1 a :15,12-20

Haurrideak, Kristo hilen artetik piztu dela predikatzen dugunaz geroz, zertan dabilta zuen artean zonbait, hilen pizterik ez dela

erraiten ?

Hilen pizterik ez dela erraiten bal inbada, Kristo ere ez da piztu. Eta Kristo ez balinbada piztu, hutsa da beraz gure predikatzea, hutsa ere zuen sinestea . Gehiago dena Jainkoaren lekuko faltsu frogatuak gira, Jainkoaren kontra lekuko izan girenaz geroz, piztu duela Kristo ; hura ez du piztu, egia balinbada hilak ez direla pizten. Hilak ez badira pizten, Kristo ere ez da piztu. Eta Kristo ez bada piztu, hutsa da zuen sinestea : oraino zuen bekatuetan zaudezte. Beraz, Kristo baitan lo daudenak ere galduak dira. Bizi huntako bakarrik balinbadugu Kristo baitan gure esperantza, gizon guzietarik dohakabeenak gira. Bainan ez : hilen artetik piztu da Kristo, lokartuak direnetarik lehena.

20

Jondoni Paulok Korintiarreri

2Kor 4,16-18

Haurrideak, ez dugu etsitzen, gure axaleko gizona desegiten bada ere, barnekoa berritzen ari zaiku egunetik egunera. Apur bateko eta arina da herstura, egiten baitauku neurritz goiti betiereko ospe haundia. Begiak ez ditugu ageri diren zeretarat itzuliak, bainan ageri ez direnetarat; ageri direnak iragankorrak baitira, ageri ez direnak berriz betirainokoak.

21

Jondoni Paulok Korintiarreri

2Kor 5,1.6-10

Haurrideak, badakigu gure lurreko egoitza, gorputza, suntsitu beharra dela, bainan Jainkoak egiten daukula zeruetan betiereko egoitza bat , gizonen eskuz egina ez dena. Fidantziaz beteak gira Jauna Baitan, eta badakigu, gorputz huntan gireno, Jaunaren ganik urrun gaudela desterruan . Sinestearen argitan baigabiltza, eta ez gure begiz ikusten . Fidantzia hortaz beteak gaudela, nahiago dugu gorputz huntarik atera, Jaunarekin bizitzeko. Horrengatik lehiatzen gira Jaunari atsegingarri izaiterat, bai gorputz huntan, bai gorputz huntarik kanpo. Guziek Kristoren auzitegian agertu behar baitugu, bakotxak har dezan ona ala txarra, bere gorputzaren bidez egin duenaren arabera.

22

Jondoni Paulok Galatiarreri

4,12-19

Haurrideak, izan zaitezte, otoi, ni bezala, ni ere zuek bezalakoa egin naizenaz geroz ; ez dautazue behinere hutsik egin. Badakizue, eri nintzelarik, predikatu dautzuetala lehen aldikotz berri ona. Eta nere gorputza zuentzat nekegarri izanik ere, ez nauzue ez gutietsi ez higuindu ; bainan Jainkoaren aingeru bat bezala hartu nauzue, Jesu Kristo bera bezala. Non da bada orduko zuen poza ? Alabainan, nik aitormen egiten dautzuet ; zuen begiak, hori daitekeena balitz, aterako zinituzten neri emaiteko. Eta orai, zueri egia erraiten dautzuetalakotz, zuen etsai egin ote naiz ? Zuen ondotik dabilta, bainan ez bide onez ; ene ganik berexi nahi zaituzte, berexi jarraik-arazteko. Ongi litake bai, ondotik bide onez ibiltzea, bainan beti, eta ez bakarrik zuen artean naizenean, nere haurtxoak, minetan berriz sortzen zaituztedanak, Kristo zuen baitan moldatu arte.

23

Jondoni Paulok Filipeko girixtinoeri

2,25-30

Haurrideak, uste izan dut igorri behar nautzuela Epafrodit nere anaia, lan eta gudutan nere laguna, zuek niri igorria, nere zerbitzatzeko behar-orduan nintzelarik. Zuen guzien ikusteko lehia handia zaukan, eta hits zabilan, eri zela aditu zinutelakotz. Hargatik lehen bai lehen igortzen dautzuet, hura ikusiz berriz bozkaria zaitezten, eta ni ere atsegaberik gabe izan nadien . Alabainan, eri egon da, hil-zorian ; bainan urrikaldu zaio Jauna, eta ez hari bakarrik, bai-ta niri ere, ez nezan atsegabea atsegabearen gainean izan. Egiozue beraz Jauna baitan ongi-etorri alaia, eta ohore emozuete holako gizoneri, Kristoren lana egitea gatik hil-hurrana egon denaz geroz ; bere bizia irriskuan ezarri du, zuek nere zerbitzatzeko egin ez zinetzazketen guziak betetzeko.

24

Jondoni Paulok Koloziarreri

1,22-29

Haurrideak, Jainkoak berekin adixkidetu zaituzte, Kristoren heriotzearen bidez, hunen haragizko gorputzari esker, bere aintzinean saildu, garbi eta hobetik gabe zuen agerarazteko. Bainan hortarako, fedean behar duzue iraun gogor eta sendo, Ebanjelioaren esperantzatik baztertu gabe ; entzun duzue-ta

zerupeko izaite guziera predikatu zaioten Ebanjelioa. Eta ni, Paulo, Berri On horren zerbitzari egina naiz. Bozkariatzen naiz orai, zuen onerako jasaiten ditudan nahigabeen gatik. Nere haragian betetzen baitut Kristoren oinazek eskas dutena, Kristoren gorputza den Elizarentzat. Elizaren zerbitzari bilakatu bainaiz, Jainkoak zuen aiderat eman dautan karguaren arabera, Jainkoaren hitza osoki zabal dezadan, lehengo mende ta gizaldietan gordean zen mixterioa, orai haren saindueri agertua zaiotena. Jainkoak nahi izan baitote erakutsi, zoin aberatsa den mixterio horren ospea paganoen artean : hori da Kristo zuen artean, osperako esperantza.

Kristo hori ezagutarazten gabilta gu, gizon guziak argituz, gizon guziera erakaspén emanez zuhurtzia osoan, gizon guziak beren beterat ekartzeko Kristo baitan. Horrengatik nekatzen naiz, nere baitan indartsu ari den Kristoren ahal guziekin gudukatuz .

25

Hebrearrei epistolatik

4, 14-16;5 , 7-9

Haurrideak, badugulakotz apez-nausi handia, zeruetan barna jina, Jesus, Jainkoaren Semea, atxik dezagun gogotik fedearen aitorra . Zeren ez baitugu apez-nausi handi bat, gure ahuleziez urrikaltzen ahal ez dena ; bainan gauza guzietan gu bezala frogatua, salbu bekatuan. Goazen beraz fidantziarekin graziaren tronurat, ardiets dezagun urrikalmendu, eta behar-orduan kausi laguntzaren grazia .

Kristok bere bizi hilkorreko egunetan, oihu-min eta nigarrekin eskaini ziozkan otoitz eta galdeak , hiltzetik salbatzen ahal zuenari ; eta entzuna izan zen, bere kartsutasuna gatik. Jainkoaren Semea izana gatik , pairatu dituenen bidez ikasi du zer den obeditzea ; eta saindutasunaren beterat heldurik, bilakatu da jarraiki zaizkon guzientzat betiko salbamenduaren iturri.

26

Jondoni Jakoben epistolatik

5, 13-16

Haurrideak, zuetarik norbait oinazetan ote da ? egin beza otoitz. Alegera ote da ? salmoak kanta ditzala . Zuetarik norbait eri ote da? dei egin diezotela Elizako apezari, eta otoitz egin dezatela haren gainean, olio gantzutzen dutelarik Jaunaren izenean.

Federekin egin otoitz horrek eria salbatuko du, eta Jaunak sendatuko du.
Bekaturik egin badu, barkatuak izanen zaizko. Egizue elgarri bekatuen
aitorra, eta otoitz egizue batzuek bertzentzat, sendatzea gatik .
Zintzoaren otoitz beroak indar handia du .

Benedikatua Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita : bere urrikalmendu
zabalararen arabera berriz sortu gaitu, esperantza bizirako, Jesu Kristoren
hiletarik piztearen bidez, zeruetan begiratu dagon, ustelik, zikinik eta
zimelik gabeko ondoriotasunerako. Zuek, Jainkoaren indarrak
begiratzen baitzaituzte sinestearen bidez, azken orduan agertzekoa den
salba -mendurako . Horrek bozkarioz altxatzen zaituzte, orai apur bat
beharbada penaturik ere ateka gaixto askotan ; zuen sinestea, hola
frogatua, urre galkorra suan frogatzen dena baino zinez baliosagoa
baita, aurki dadien laudorio eta loria eta ohore-bide, agertuko denean
Jesu Kristo gure Jauna . Jesus, bera behinere ikusi gabe maite duzue,
oraino ikusi gabe sinesten duzue haren baitan ; eta ezin erranezko
bozkario zoragarriaz altxatuak zirezte, ardiesten baituzue fedearen hel-
burua, arimen salbamendua .

Haurride maiteak, ikus-azue zombateko amodioa eman daukun Aitak : gu Jainkoaren haurrak deituak izateko, eta hala gira . Munduak ez bagaitu ezagutzen, huna zergatik : Jainkoa ez baitu ezagutu . Maite maiteak, oraidanik Jainkoaren haur gira, eta gero zer izanen giren ez da oraino ageri . Badakigu, Jainkoaren Semea agertuko denean, hura iduri izanen girela, hura ikusiko baitugu den bezala.

Nik, Joanik, ikusi nuen zero berri bat, lur berri bat, lehengo zerua eta lehengo lurra itzaliak baitziren, eta etzen gehiago itsasorik. Ikusi nuen hiri saindua, Jerusaleme berria, zerutik jausten Jainkoaren ganik, osoki ederra, iduri ezkont-berria bere senarrarentzat apaindua. Eta entzun nuen mintzo azkar bat, Jainkoaren tronutik heldu, ziola : " Huna Jainkoaren egoitza gizonen artean. Heiekin egonen da, eta hek izanen dira haren populu, eta hura, Jainkoa heiekin . Nigar guziak xukatuko diozkate, eta ez da gehiago izanen heriotzerik ; eta nigar-garrasi eta atsegaberik ez da gehiago izanen; lehengo gauzak itzali baitira. " Orduan tronuan jarriarik zaudenak erran zuen " Huna non gauza guziak berri egiten ditudan ." Eta erran zautan: " Idatzi : egiak dira ta zinezkoak hitz hauk ." Eta erran zautan : " Egina dago . Ni naiz alfa eta omega hastapena eta azkena . Egarri denari urriarik emanen diot nik ura biziaren iturritik. Irabazleak hau izanen du sari : ni haren Jainko, eta hura nere seme .

Izpirituak eta Emazteak diote : "Zato ." Entzuten duenak erran beza : "Zato". Egarri dena etor bedi, eta nahi duenak har beza urriarik biziaren ura. Gauza horiek aitortzen dituenak dio : " Heldu naiz berehala." Amen. Zato, Jesus Jauna . Jesus Jaunaren grazia izan bedi zuekin guziekin .

SALMOAK

Izai 38

Leloa Jaunari kantu, zerutik gaitu eskuz hartu.

Erran dut erran : Nere biziak ez eguerdi

Eta bizirik ezin geldi .

Hilen arteko zilorat noa erdiz erdi ,

Ondar urteri diot : adi .

Erran dut erran: Nik orai Jauna ezin goza ,

Bizi direnen mundu huntan.

Hemendik harat nik orai nihor ezin mintza

Lurrean dauden guzietan.

Joaten du berdin artzainak bere gau-etxola,

Neri bizia zuk bezala .

Ari da berdin biribilkatzen dendaria ,

Zankan dadien motz aria .

Eginen dautzu nere bihotzak, Jauna, kantu

Nik zuretzat dut nahi bizi .

Sendatu nauzu eta bizirik begiratu :

Osasunean pitz-arazi .

Sal. 6

Leloa Urrikal nitaz, ahul naiz ahul, eman indar .

Ez otoi, Jauna, sutan jar eta neri jazar,

Ez otoi, ni jo , hasarrean

Urrikal nitaz, ahul naiz ahul, eman indar ,

Bainago hezur ikaretan .

Arima ere ikaretan dut ilun bakar ,

Atsegabeen ilunbetan .

Zuk, nere Jauna, Jainko hain ona, zuk noiz arte

Ni bazterrerat hola bota ?

Nere arima salba dezazun itzul zaite,

Zure bihotza ona baita.

Heriotzean nor ote zutaz orroitu daite ?

Nork hil-ziloan zuri kanta ?

Kaltegileak, zoazte nitarik zoazte urrun :

Nigarrek dauzkit Jaunak entzun .
Nere otoitzak ditu zerutik Jaunak entzun,
Onhartu dauzkit deiak egun .

Sal. 24

Leloa : Zu ganat daukat nere arima, Jainko Jauna

Zure bideak erakuts, Jauna, otoi, neri :
Emazu ere xendren berri .

Zure egia igor zadazu aintzindari ,
Dena bainago beti zuri .

Zer amodio duzun guretzat orroit, Jauna,
Zer sekulako bihotz ona .

Ez gogoan har nere gazteko bekatuak,
Nere gaitz ezin ukatuak .

Neurrigabeko bihotz onean har nezazu,
Osoki ona baitzare zu .

Ona da ona eta zuzena Jainko Jauna Harek xuxentzen
makur dena .

Apalak ditu zuzen zuzenik joan- arazten,
Beren bidean ibil diton

Haren bidean egia eta amodio,
Hari josiak bagitzaio
Hari daudenak ditu Jainkoak adiskide ,
Agertzen da maiz heien aide

Nere begiak Jaunaren ganat dauzkat beti
Saren artetik nadin xuti
Beha zadazu, nere oihua bihotzez har :
Dohakabe naiz eta bakar .

Sal . 26

Leloa : Egon bakean Jaunaren beha, altxa bihotza

Jauna dut argi, Jauna geriza : ni nork izi ?
Jauna dut lagun : nork behar nau ni dardarazi ?
Hau dut Jaunari bakar-bakarra, hau galdea :
Haren etxean bizi naizeno egoitea
Haren gozoen gozoaz nadin beti goza ,

Begiz ikusiz Jainkoarena den egoitza
Egun beltzetan gordeko bainau aterbean
Gordeko eta xut ezarriko arkaitzean

Entzun, Jainkoa, otoizka dagon nere boza
Urrikal zaite, ihardets neri, otoi, mintza.
Bihotza deika , beha ta beha banabila,
Zure zeruko begitarte gaupetz bila .
Etzadazu ba begitarte hola gorde ,
Ez hasarrean zure zure hau utz dekalde .

Ez ni arbuia, zu zaitut, Jauna, zu laguntza,
Salbatzailea, ez ni zu ganik, urrun haiza.
Nere aitamek arras utzia banaiz ere,
Jainkoak nau beti atxikiren, bainau bere.

Sal . 33

Leloa Bihotz errautsi apaldueri hurbil Jauna

Jaunari beti esker emaiten nagokio
 Hari nik beti iaudorio .
Jaunaren baitan arima kantuzbanabila :
 Bihotz apalak pitz ditela

Denek batean gorets dezagun Jainko Jauna
 Eta goraipa Jaun izena .
Jaunaren bila nindoan eta huna Jauna :
 Beldurra baitaut urrun joana .

Jaunari beha egon, begiak dirdiraka :
 Ez zaitezten gal , ez ahalka.
Dohakabeak dei egin dio : Jaunak entzun ,
 Hersturik ez dut hura lagun .

Jainkoarenek, izan Jaunaren beldur saildu :
 Fede duenak dena badu
Handi-mandiak, hits eta gose badabilta ;
 Jainkozaleak dena gauza

Etor semeak, nahi dautzuet erakutsi
 Jaunaren beldur nola bizi .
Nun ote da nun bizi egarri den gizona,
 Nahi bailuke zoriona .

Gaixtagineri Jaunak hasarrez begiratzten,
Heien izena noiz nola ken .
Bihotz errautsi apaldueri hurbil Jauna,
Zaintzen du zaintzen apal dena.

Sal 41-42

Leloa Orkatzak udan iturriraino zer lehia .
Zu ganat, Jauna, nik ere dudan egarria.

Egarritz noa nik Jainkoa noiz ikus ote ,
Noiz egon hari noiz begitartez begitarte .
Joanen naiz joanen Jainko Jaunaren etxeraino,
Bertzen artean dena irrintzin, laudorio

Argia eta egia igor aintzindari,
Igan nakion egoitza duzun mendiari.
Jainko Jaunaren aldareari noakio,
Hartan baitut nik gazte-su eta bozkario.

Sal . 62

Leloa : Nere Jainkoa, zutaz egarri banabila .

Nere Jainkoa, goizetik noa zure bila :
Zutaz egarri banabila .
Lur agortua uriz egarri den bezala,
Ni zure minak nerabila .
Zauden etxean, zu, Jauna, ikus zaitzadala,
Indarrez, ospez hoin zabala .

Bizia bai no zure grazia gozoago ;
Zuri gogotik kantuz nago
Jaun izenari nere bizian laudorio :
Eskuak luze nagokio
Nere arimak Jauna du Jauna gozoz gozo
Nere ezpaineak bozkario

Ohe gainean, Jainkoa, zutaz orroitzean,
Gauetz gau nago zu gogoan .
Izan zare zu nere laguntza gal-bidean,
Gostuz nagozu hegalpean.
Nere arima badago tinki zu ondoan,
Atxik beti ni zuk eskuan.

Sal. 70

Leloa Zatozkit, Jauna, laster lagun .

Neretzat izan beso zabal, Jauna betikotz ez nadin gal.
Atera nadin, eman hegal ni ganat laster, otoi apal .

Zu zaitut Jauna, goza nahi, Zu gaztedanik bihotz argi. Sortzetik zaizkit
zain egoki, Beti zurea naiz osoki.

Ezpainak ditut kantuz ari, Goiz-arrats zure ospeari.
Ni xahartzean, ez utz, Jauna, Ni ttipitzean ez erdeina.

Egonen naiz ni zuri dena, Eginen dautzut kantu, Jauna.
Nik zuri kantu, Jaun zuzena, Goiz-arrats kantu : zer laguna .

Sal 85

Leloa : Jainko urrikaltsua, nitaz urrikal, neri beha .

Apal zu, Jauna, dena beharri nere alde,
Ezdeus naiz eta dohakabe.
Beira nezazu zurekin bainaiz adiskide :
Zure hunen zain, otoi, zaude.

Zu zaitut Jainko : ni, Jauna, izan urrikari,
Zu gana bainaiz oihuz ari.
Pitz nezazu pitz, ixur zuk duzun indar hori,
Entzun zer deia, zer auhena

Ona zare zu dei egilentzat ona, Jauna,
Denentzat duzu bihotz ona.
Entzun, Jainkoa, zuri otoizka nik errana,
Entzun zer deia, zer auhena.

Dudala , Jauna, zure bidea funski jakin,
Zure nahia dudan egin .
Nere bihotza zuhauk erabil artarekin
Zure beldurraz bete dadin .

Bihotz-bihotzez zaitut nik, Jauna, goretsiko,
Eskerrak zuri sekulako.
Ainitz baituzu neretzat izan amodio ,
Ifernutik ni kentzeraino .

Bainan zuk, Jauna, laket baituzu maitatzea ,
Eta hoin guti kexatzea ,

Zu, amodioz eta egiaz hoin betea,
Nitaz urrikal, neri beha.

Sal . 89

Leloa Gure geriza zaude zu, Jauna, mendez mende.

Etzen mendirik, lurrik, mundurik nihun ere,
Zu Jainko zare betieretik betiere.

Hilkor gizonak sar ditene berriz errautsean,
Zuk erran duzu : Gizonak berriz errauts izan
Mila bat urte zure begien aintzinean ,
Atzoko egun ala gauaren idurian .

Hartzen ditutzu eta hek amets baten pare,
Nola belarra hek sortu eta hil baitire
Argi hastean handitzen eta dena lore,
Gauerakoan histen, eihartzen, ez deus-ere.

Egunak nasai, lan eta minak nasaiago :
Laster doatzi laster eta gu joan beharko .
G ure egunez erakuts guri zer diozun ,
Gaiten gogotik zuhurtziarat hel, zu lagun.

Bihotz beteka goizetik ixur amodio ,
Goiz-arrats dugun bai kantu eta bozkario.
Zureen baitan ager dadila zuk egina
Heien semetan zure argirik argiena .

Sal. 101

Leloa Otoi, Jainkoa, nere otoi za entzun zazu,
Nere oihua hel bekizu .

Begitartea ez nere ganik, otoi, itzal,
Egun beltz huntan ez nadin gal.
Dena beharri apal zakizkit nere lagun :
Deitu orduko laster entzun.

Noan bidean indarrak ditut minek janak:
Laster akabo nik egunak .
Jaunari diot : Ni ez hil-araz, ni hoin gazte
Zure urteak mendez mende .

Aspaldi hartan izan da lurra zure lana :

Zerua ere zuk egina .
Hek joanen dire, bazaudelarik sekulako :
Nola jauntziak hek histuko.
Soinekoz alda eta hek hala joaten dire ;
Zu aldiz bera betiere .
Zureen haurrak biziko dire beti zure ,
Heien semeen haurrak ere
Hau izkirioz emanen dut gerorako ,
Jende berriek kantatzeko.
Nara bai nota zerutik Jauna den apaldu :
Gure lurrerat behatu du .
Lokarrietan zaudenen deiak entzun ditu ,
Abantxu hilak berak piztu .

Sal. 102

Leloa: Ona da Jauna eta guzien urrikari

Eskerrak eman, nere arima, Jainkoari ;
Nere barneko guziek haren izenari.
Eskerrak eman, nere arima, Jainkoari ;
Ez nehoiz ahantz zoin usu zaitzun urrikari .

Harek barkatzen, noiz baitzare zu makur ari,
Indar emaiten, ahul bazare ala eri .
Libratzen zaitu, kasik baitzare hil erori,
Emaiten dautzu amodioa minen sari .

Zenbatez baita zerua nausi lur zolari ,
Hala guretzat Jainko bihotza nausi ari.
Bi zeru alde ezin neholaz jo elgarri :
Gure hobenak gutarik urrun hak ezarri .

Nola baitio aitzak behatzen semeari,
Hala da Jauna Jainkozaleen urrikari.
Badaki berak hezurrez hezur gure berri :
Ezagutzen du gu jitez garen errauts hori .

Gizon-biziak uda belarra zoin iduri,
Pentze-loreen pareko lore sortzen hari.
Aizea heldu eta lorea histen ari :
Zagon tokia nihori nihun ez ageri.

Jainkozalentzat Jainko bihotza ezin neurri :
Betieretik betierean miresgarri.
On dagiote heien semeen semeeri,
Balinbazaizko josiak eta zuzen ari.

S al. 122

Leloa Gure begiak Jainkoari
 Noiz gaituzken noiz urrikari

Zerurat nago dena begi,
Han baitzare zu han egoiki.
Mutil begiak berdin ari
Beren nausien eskueri .

Neskato soak berdin ari
Etxekanderen eskueri .
Gure begiak Jainkoari :
Noiz gaituzken noiz urrikari

Sal 142

Leloa Nere otoitza onhar, Jauna
 Nere otoitza onhar, Jauna,
 Entzun nik egin dei auhena
 Ona baitzare guziz ona,
 Entzun nezazu, jaunena Jauna .
 Ez dei auzirat zure dena :
 Zuretzat nor da nor zuzena ?

Gogoan ditut joan egunak ,
Bihotz barnean zure lanak
Zuk egin lanez orroit ari,
Eskuak dauzkat deika zuri .
Lur idorrek dei, nahiz uri
Arima zutaz dut egarri

Zure nahien egiteko, argi nezazu
Argi nezazu ; nik zu Jainko.
Zure gogoak eramana
Dudan har bide segurrena .

ALLELUIA**ALLELUIA**

Gure gainerat agerJauna, Zute betiko bihotz ona
Gure bihotza baita dena Zuri osoki, Jainko Jauna .

Dohatsu nigarretan direnak, kontsotamendu izanen dute.
Kristok gure ahuteziak hartu ditu eta gure gaitzak ereman

Zatozte ni ganat nekatuak eta lehertuak,
eta nik arinduko zaituztet, dio Jaunak .

Benedikatua Jainkoa, urrikalmenduen Aita,
laguntza ororen Jainkoa, herstura guzietan laguntzen gaituena.

Benedikatua Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,
Kristoren baitan benedikatu gaitu
Izpirituaren benedizione guziez .

Dohatsu gizona, frogapena jasaiten duena,
hola irabaziko baitu biziaren korona .

EBANJEL1OAK

1

Jesu Kristoren Ebanjelioa

jondoni Matiuren liburutik

5,1-12a

Egun hartan, jende osteak ikustean, Jesus mendirat igan zen, eta jarri zelarik hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak Ahoa idekirik, hasi zitzaioten orduan erakaspén emaiten, erranez :

" Dohatsu bihotz barnez behartsu direnak, heiena baita

zeruetako Erresuma

Dohatsu eztiak, lurraz jabetuko

baitira . Dohatsu nigarretan direnak, kontsolamendu

izanen baitute .

Dohatsu zuzentasun gose eta egarri

direnak, asean ukanen baitute a Dohatsu urrikalkorrak, urrikalmendu

ardietsiko baitute . Dohaf..

Jainkoa ikusiko baitute

Dohatsu baketiarrak, Jainko-

aren seme deituak izanen baitira . Dohatsu zuzentasu-naren gatik gaizki

erabiliak direnak, heiena balte zeru-etako Erresuma . Dohatsu zuek

laidostatu eta gaizki erabiliko zaituztenean, bai etc gezurka belztuak

izanen

zireztenean nere gatik

Bozkaria etc loria zaitezte, nasaia

baituzue saria zeruetan .

2

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik

8,1-4

Jesus menditik jaustean, jendeketa gaitza jarraiki zi-tzaion . Eta hune lepradun bat, aintzinerat etorririk , ahuspez eman zitzaiola erranez : "

Jaune, nahi baduzu, Garbi nezakezu ." Jesusek, eskua hedaturik,

hunkitu zuen erranez " Nahi dut, izan zaite garbitua ." Eta ordu berean

garbitu zen haren lepra

Eta Jesusek erran zion : Beha, nehorri ez

aipa ; bainan zoazi, ager apezari eta ageritzat eskain Moisek manatu

emaitza ."

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik 8,5-17

Egun hartan, Jesus Kafarnaumerat sartzearekin, ehuntari bat hurbildu zitzaion, erranez : "Jauna, nere mutila etxean etzana dago, ezindua, oinaze gorritan." Jesusek erran zion: "Jauna, ez naiz on, zu nere etxean sartzeko, baina errazu bakarrik hitz bat, eta sendatuko zait mutila. Alabainan, nik ere bertzeen meneko naizelarik, baditut soldadoak ene azpiko, eta bati erraiten diot : "Habil", eta badoa, bertzeari : "Ator", eta heldu da, nere mutilari : "Hou egizak", eta egiten du." Hori aditzeare kin, Jesus miretsia zagon, eta ondotik zitu eneri erran zioten:

"Egiaz derautzuet : nehoi, Izraelen, ez diot holako federik aurkitu. Bada, nik dautzuet, etorriko direla iguzki-aldetik eta Jakobekin, mahainean jarriko direla Abraham, Izaak eta Jakobekin; zeruetako Erresumako semeak, aldiz, aurdikiko dituzte kanpoko ilun-beetarat, han izanen boita nigar eta hortz-karraska." Gero erran zion ehuntariari : "Zoazi, egin bekizu sinetsi duzun bezala." Eta mutila sendatu zen ordu berean.

Jesus, Petriren etxera joan zenean, hunen amaginarreba sukarrarekin ohatua ikusi zuen ; eskua hunkitu zion eta sukarrak utzi zuen. Jeiki zen eta zerbitzatzen hasi. Ilun nabarrean debrudun asko ekarri ziozkaten, hitz batez haizatu zituen debruak, eta eri zauden guziak sendatu. Izai profeta-ren errana bete zadin : Gure ahuleziak hartu ditu, eta gure gaitzak ereman.

(Laburra : 5-13, edo 14 - 17)

JESU Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik 11, 25-30

Egun hartan, Jesus mintzatu zen, erranez : "Gora zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza horiek gorde baitituzu zuhur eta jakintsuneri, eta haur txikiari agertu. Bai, Aita, hola nahi izan duzu. Denak eman dauzkit Aitak. Nehork ez du eza-gutzen Semea, Aitak baizik, eta nehork ez du ezagutzen Alto, Semeak baizik, eta Semeak argitu nahiko duenak... Zatozte ni ganat nekatuak eta lehertuak, eta nik arinduko zaituztet. Har-azue ene uztarria eta ikas ene ganik : ezti eta bihotz umil bainaiz, eta aurkituko duzue atsedena zuen arimentzat. Gozoa boita nere uztarria, eta arina nere zama."

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik 15, 29-31

Egun hartan, Jesus Galileako itsas-hegirat joan eta, mendirat igan zen eta han jarri. Jendeketa gaitzak hurbildu zitzaizkon, berekin zituztela maingu, herbaildu, itsu, mutu eta bertze asko. Oinetan ezarri ziozkaten, eta sendatu zituen. Jendea harriturrik zagon, ikustearekin mutuak mintzatzen, herbail-duak xutitzen, mainguak ibiltzen eta itsuak ikusten. Eta goretsi zuten Izraelgo Jainkoa.

6

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik 25,31-40

Egun hartan, Jesusek erran zioten bere dizipulueri "Etorriko denean G izonaren Semea bere ospean, eta aingeru guziak harekin, orduan jarriko da bere ospezko alkian. Gizalde guziak bilduko dira haren aintzineran ; eta batzu bertzetarik berexiko ditu, artzainak ardiak akerratarik berexten dituen bezala : ardiak emanen ditu bere eskuinean, akerrak aldiz ezkerrean. Orduan Erregeak erranen diote bere eskuinekoeri : "Zatozte, nere Aitaren benedikatuak, eta harzazue munduaren sortzetik zuentzat apailatua lagon errei-nua. Ezen, gose izan naiz, eta eman dautazue jaterat ; egarri eta edaterat eman ; arrotz, eta etxerat hartu nauzue ; biluzia, eta beztitu ; eri eta ikusten izan zaizkitet ; preso, eta jin zireste ni gana". Orduan ihardetsiko diote justuek, erranez : "Jauna, noiz ote ikusi zaitugu gose, eta jaterat eman ? Egarri, eta edaterat eman ? Noiz ikusi arrotz, eta etxerat hartu ? Biluzia eta beztitu ? Noiz ikusi zaitugu eri edo preso, eta jin ikustera ?" Eta Erregeak ihardetsiko diote "Egiaz derautzuet : ene haurrideak diren xumeen horietarik bati egin duzuen aldi guziez, eni dautazue egin.

7

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 2, 1 -12

Egun hartan, Jesus berriz sartu zen Kafarnaumen. Petriren etxean zelako berria hedatu zen. Hainbertze jende bildu zen, non ez baitzen lekurik ate aintzinean ere . Jesusek Hitza adiarazten zioten .

Heldu zaizko parlesiatu baten ekartzerat, lau gizonek derama-tela. Ez baitzezoketen aintzinerat ekar jendetzearen gatik, Jesus zagon etxeko teilatua urratu zuten, eta zilo bat eginik, jautsi zuten parlesiatua etzanik zagon ohea. Jesusek heien fedea ikusirik, erran zion parlesiatuari : " Seme, zure bekatuak barkatuak zaizkitzu." Baziren han jarriak zonbait, beren baitan ari zirenak : " Nolz da hori hola mintzo? Blas-femioka ari da . Nork ditzazke barka bekatuak, Jainkoak baizik ?" Ordu berean, ezaguturik zer zerabilkaten beren baitan, Jesusek diote : " Zertako derabilzkatzue gogoeta ho-riek zuen bihotzean ? Zer da

errexago ? parlesiatuari erraitea barkatuak zaizkitzu zure bekatuak, ala erraitea : jeiki zaite, har zure ohea eta ibil ? Beraz, jakin dezazuen Gizonaren Semeak baduela lurraren gainean bekatuen barkatzeko eskua, nik erraiten dautzut, (dio erraiten parlesiatuari),jeiki har zure ohea eta zoazi zure etxerat." Jeiki zen eta berehala, ohea harturik, atera zen guzien aintzinean. Denak harriturik gelditu ziren, eta Jainkoa goresten zuten erranez : " Egundaino ez dugu holakorik ikusi ."

8

Jesu kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 4, 35-41

Egun hartan, ilun nabarrean, Jesusek dizipulueri erran zioten : "Goazen uraz bertzaldera. " Jendea utzirik, eremaiten dute Jesus untzian, zagon bezala ; eta bertze untziak ere baziren harekin. Haize-ekaitz haundi bat sortu zen ; untzi barnerat sartzen ziren uhainak, untzia ja betetzeraino. Jesus xopan lo zagon bururdi baten gainean. Iratzarri zuten, erranez : "Nausia ? Ondatzerat goatzi, eta zuri axolarik ez ? Atzarririk, larderiatu zuen haizea, eta itsasoari erran : "Xo ? Ago ixilik ?" Haizea gelditu zen eta itsasoa jarri jabal-jabala. Jesusek erran zioten : "Zergatik zirezte hoin beldurti ? Ez ote duzue oraino sinesterik ?" Beldur handiz beldurtu ziren, eta elgarri zioten : "Nor da bada hau ? haizeak eta itsasoak obeditzen baitiote ?"

9

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 10, 46-52

Egun hartan, Jesus Jerikotik atera zenean dizipulu eta jendal-: de haundi batekin, Timeren semea, Bartime eskale itsua, bide ondoan jarria zagon. Nazareteko Jesus zela jakin zuenean, oihuka hasi zen : "Jesus, Dabiden Semea, urrikal nitaz " Ainitz erasiaka ari zitzaizkon,ixil-arazi beharrez, bainan harek are gehiago oihu : "Deitazue." Itsua deitzen duce erranez : "Gora bihotza . Xuti zaite . galdatzen zaitu". Bere soingainekoa aurtikirik, jauzi egin zuen, eta Jesusen ganat etorri. Jesusek erran zion : "Zer nahi duzu nik zuri egitea ?" Itsuak ihardetsi : "Rabbouni, ikus dezadan." Eta Jesusek erran zion : "Zoazi, zure sinesteak salbatu zaitu." Ordu berean hasi zen ikusten, eta bidean jarraitzen zitzaion Jesusi.

10

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 16,15-20

Egun hartan, Jesus agertu zitzaioten hameka apostolueri eta erran zioten : "Zoazte mundu guzian barna, eta Ebanjelioa predika zozuete kreatura guzieri.

Sinetsiko duena eta bataiatua izanen dena, salbatua izanen da ; sinetsiko ez duena aldiz, kondenatua. Huna sinetsiko duteneri jarraikiren zaizkoten ezagutgarriak : ene izenean debruak haizatuko dituzte, mintzaira berriak mintzatuko; sugeak eskuz hartuko, eta hiltzeko zerbait edaten badute, ez diote kalterik egingen ; eskuak erien gainean hedatuko dituzte, eta eriak sendatuko dira." Jesus Jauna, heieri hala mintzatu ondoan, zerurat altxatua izan zen, eta jarri zen Jainkoaren eskuinean .

Hek aldiz joan ziren bazter guzietan predikatzerat, Jaunak laguntzen zituela eta finkatzen hitza heieri jarraiki ezagutgarriez .

11

Jesu kristoren Ebanjelioa san luken liburutik 7, 19-23

Egun hartan, Joanesek bi dizipulueri dei egin-eta, igorri zituen Jesusi galdatzera : "Zu ote zira etortzekoa dena, ala bertze baten beha egon behar dugu ? Gizon hek Jesusen gana hurbildu-ta erran zioten: "Joanes Bataiatzaileak igorri gaitu zure gana , erranez : Zu ote zira etortzekoa dena, ala bertze baten beha egon behar dugu ?". Ordu berean, Jesusek asko sendatu zituen beren gaitz, eritasun eta debruetarik, eta itsu askori eman zioten argia. Jesusek ihardetsi zioten: "Zoazte eta erran Joanesi ikusi eta entzun duzuen. Itsuek ikusten dute mainguak badabiltza, lepradunak garbi gelditzen dira, elkorrek entzuten dute, hilak pizten dira eta behartsueri Berri ona predikatzen zaiote. Eta dohatsu, erorbide izanen ez nitzaiona.

12

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik 10,5-6.8-9

Egun hartan, Jesusek erran zioten bere dizipulueri: " Edozoin etxetan sar zaitezten, errazue lehenik Bakea izan bedi exe huntanl. Han bake-semerik balinbada, haren gainean jarriko da zuen bakea ; bertzela, zuetarat itzul iko da. Edozoin hiritan sar zaitezten, ongi etorria egiten badaut-zuete, jan zazue aintzinerat ekarria. Sendcizkitzue han diren eriak, eta erran jendeeri : "Hurbildua zaitzue Jainkoaren Erresuma.

13

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik 10,25-37

Egun hartan, Jesus hutsean atxeman nahiz, lege-gizon batek galdegin zion : " Jaun Erakaslea, zer egin behar dut betiereko biziaren ardiesteko ?" Erran zion

Jesusek : " Legean zer da izkiriaturik ? zer irakurtzen duzu ? " Harek ihardetsi: " Maitatuko duzu zure Jaun eta Jainkoa zure bihotz guziaz, zure anima guziaz, zure indar guziez eta zure gogo guziaz, aldeko laguna berriz zuhaur bezala." Jesusek erran zion : " Xuxen ihardetsi duzu : egizu hola eta biziko zira ." Bainan harek, nahiz azken hitza bere, galdetu zion Jesusi " Bainan nor da nere aldeko laguna ? " Jesusek orduan : " G izon bat, Jerusalemetik Jerikorat jaustean, ohoinen eskuetarat erori zen. Zituenak oro hartu ziozkaten, eta ukaldika ehorik, joan ziren erdi hilik utzi-ta. Hainbertzenarekin, apez bat jausten zen bide beretik ; gizonari ohartu-ta, bazterturik, jo zuen aintzina. Berdin lebitar bat, leku beretik zoana ohartu-ta bazterturik, joan zen aintzina. Zamaritar bat, bidean zoana, ondorat etorri zitzaion, eta oharturik urrikaldu . Hurbildu-ta haren zauriak lotu zituen, olio eta arno ixurtzen ziola . Gero, bere zaldiaren gainerat altxaturik, ostaturat ereman zuen, eta han artarazi . Biharamunean, bi denario aterarik, ostalerari eman ziozkan, erranez : " Arta zazu, eta gainerateko gastuak gibeleratekoan ordainduko dauzkitzut." Hiru horietarik zoin izan da, zure iduriko, ohoinen eskuetarat erori haren aldeko laguna ? " Lege-gizonak ihardetsi: " Urrikaldu zaion hura ." Jesusek erran zion " Zoaz, eta zuk ere berdin egizu . "

14

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik 11,5-13

Egun hartan, Jesusek erran zioten ere : "Zuetarik batek adixkide bat ukanki-eta, gau minean balin badoako galdez : "Adixkidea, presta-zkidatzu hiru ogi, ezen badut adixkide bat piaiaz etorria eta ez dut hari zer eman." Harek aldiz barnetik ihardesten badio : "Utz nezazu bakean : atea ja hetsia dut ; haurrak ohean ditut eta ni ere bai. Ez naiteke jeiki zuri emaiteko. Nik erraiten dautzuet : ez balin bada jeikitzen heien emaiteko, bere adixkidea duelakotz, jeikiko da bizkitartean, bertzeak nardatzen duelakotz, eta emanen diozka behar dituenak oro. Eta nik derautzuet : Galda eta emanen zaitzue ; bila eta atxemanen duzue ; jo atea eta idekiko dautzue. Alabainan, galdatzen duenak ukaiten du ; bilatzen duenak atxemaiten ; joiten duenari idekiko zaio. Zuetarik zoin aita, semeak ogia eskatzen diolarik, emanen dio harria ? Zuetarik zoin aita, semeak arraina eskatzen diolarik, emanen dio sugea ? Edo arroltzea galdediten diolarik, emanen dio harrulia ? Beraz, Zuek, gaixtoak izanik ere, balin badakizue zuen haurrerik gauza onen emaiten, zenbatez hobeki zuen Aita zeruetakoak emanen diote Izpiritu Saindua galdatzen dioteneri ?

15

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik 12,35-44

Egun hartan, Jesusek erran zioten bere dizipulueri: "Zaudezte gerrikoa gerrian, eta argia eskuan. Izan zaitezte nausia ezteietarik noiz etorriko den beha dauden mutilak bezala, etorri-eta, jotzen dueneko, idek diezoten. Dohatsu mutil horiek, nausiak etortzean atzarririk kausituko dituenak. Egiaz derautzuet, bere gerrikoa soinean jauntzi-eta, mahainean jar-araziko dituela, eta bera zerbitzatzen hasiko zeila. Heldu bada gauerditan, edo berantagoa, eta hola kausitzen baditu, dohatsu hek . Jakizue hau: balaki etxeko nausiak zoin tenorez etortzekoa den ohoina, atzarririk lagoke, eta ez lezake utz bere etxearen zilatzerat. Zuek ere, zaudezte prest, uste ez duzuen tenorean etorriko baita Gizonaren Semea." Petrik erran zuen orduan : "Guretzat erraiten ote duzu parabola hori, ala guzientzat ?" Jaunak ihardetsi : "Nor da bada mutil-nausi zintzo eta zentzuduna, nausiak bere zerbitzarien buru ezarriko duena, bakotxari bere orduan ogi neurria emaiteko ? Dohatsu, nausia heldu denean, hori egiten aurkitzen duen mutila . Egiaz derautzuet : bere ontasun guzien buru ezarriko du.

16

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik 18 , 9-14

Egun hartan, gizon batzuek, saildu zirelako ustean, beren buruak gora baitzauzkaten eta bertzeak deus guti, Jesusek heieri buruz, parabola hau erran zuen. "Bi gizon igan ziren Tenplorat otoitz egiteko : bat farisaua zen, bertzea zerga-biltzailea. Farisauak, burua xut, otoitz hau egiten zuen bere baitan: "Ene Jainkoa, eskerrak zuri, ez bainaiz, bertze gizonak bezala, ohoina, makurra, lizuna ; ez eta hortxeko zergari horren idurikoa. Astean, bi egun barurtzen ditut, eta ene irabazi guzien hamarretarik bat emaiten dut. " Zergaria aldiz, urrundik zagon, eta ez zen menturatzen zeru alde begien altxatzerat. Bularra joz, ari zen : "Ene Jainkoa, urrikal zaite naizen bekatoreaz." Hitz dautzuet : etxerat itzuli zenean, hau zen justua, eta bertzea ez. Nork ere baitu bere burua goratzen, hura apaldua izanen da ; bere burua apaltzen duena aldiz, hura goratua."

17

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 6,35-40

Egun hartan, Jesusek erran zion jendeari : " Ni naiz biziaren ogia. Ene ganat heldu denak, ez du goserik izanen . Ni baitan sinesten duenak, ez du egarririk izanen sekulan. Bainan, nik erran dautzuet : ikusi nauzue eta ez duzue sinesten. Aitak neri eman guziak, nere ganat etorriko dira ; eta ene ganat

heldu dena, ez dut kanporat aurtikiko. Ezen, zerutik jautsia naiz, ez nere nahia egitea gatik, baina ni igorri naudenaren nahia. Huna bada ni igorri nauden Aitaren nahia : harek eman guzietarik ez dezadan bat ere gal, baina guziak pitz ditzadan azken egunean. Ezen hau da nere Aitaren nahia: Semea ikusten duenak eta hartan sinesten, ukan dezan betiereko bizia ; eta nik piztuko dut azken egunean .

18

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 6,53-58

Egun hartan, Jesusek erran zion jendeari : "Egiaz, egiaz derautzuet. Ez baduzue jaten Gizonaren Semearen haragia, eta edaten haren odola, ez duzue bizia zuen baitan. Nere haragia jaten eta nere odola edaten duenak badu betiereko bizia ; eta nik piztuko dut azken egunean. Alabainan, nere haragia egiazko janaria da, eta nere odola egiazko edaria. Nere haragia jaten duena eta nere odola edaten, ni baitan dago, eta ni haren baitan . Bizia den Aitak ni igorri nauden bezala, eta ni Aitaz bizi naizen bezala, halaber, ni jaten nauena nitaz biziko da . Hau da zerutik jautsi ogia ; ez zuen aitek jan zutena bezalakoa, hil baitziren ; ogi hau jaten duena biziko da betiere .

19

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 9,1-7

Egun hartan, bidean zoalarik, Jesusek ikusi zuen gizon bat sortzetik itsua. Bere dizipuluek galdegin zioten: " Nausia, nork eain du bekatu, horrek ala horren aitamek, hori itsurik sortzeko ? Jesusek ihardetsi : "Ez du horrek bekatu egin ez eta horren aitamek ; Baina horren baitan agertu beharrak ziren Jainkoaren obrak. Ni igorri naudenaren obrak egin behar ditugu, argi deno ; heldu da gaua, orduan ez baititake ar lanean. Munduan naizeno , munduaren argia naiz." Horiek erran eta, tu egin zuen lurrerat, tuarekin lohia moldatu, eta itsuaren begietan eman. Gero erran zion: "Zoazi garbitzerat Ziloeko mainutegira." (Ziloe hitzak erran nahi du : igorria). Joan zen beraz itsua, garbitu, eta gibelerat itzuli, ikusten zuela.

20

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 10,11-18

Egun hartan, Jesusek erran zuen : " Ni naiz artzain ona. Artzain onak bizia

emaiten du bere ardientzat. Saritan denak aldiz, ez baita artzaina hura, eta ardiak ez baititu bereak, ikusten du otsoa heldu, uzten ditu ardiak eta badoa ihesi; otsoak harrapatzen ditu ardiak eta barreiatzen . Saritan denak ez du axolarik ardiez. Ni naiz artzain ona, ezagutzen ditut nere ardiak, eta nere ardiek ezagutzen naute, Aitak ni ezagutzen nauen bezala, eta nik Aita ezagutzen dutan bezala; eta ene bizia emaiten dut nere ardientzat. Baditut bertze ardiak ere, ez baitira arditegi huntakoak : hek ere behar ditut erabili. Adituren dute ene mintzoa, eta ez da izanen artalde bat eta artzain bat baizik. Huna zergatik Aitak maite nauen : ene bizia emaiten baitut, gero berriz hartzeko. Nehork ez daut kentzen ahal, baina nik dut emaiten ene baitarik. Badut emaiteko ahal, eta berriz hartzekoa: horra ene Aitaren ganik ukan dutan manua.

21

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik 26,36-46

Egun hartan, Jesus heiekin etorri zen Getzemani deitu baratze baterat, eta erran zioten : "Zaudezte hemen, ni harat otoitzera noan artean". Berekin harturik Petri eta Zebederen semeak, hasi zen barnez iluntzen eta lazten. Orduan erran zioten heieri : "Nere arima lastua da hiltzeraino. Zaudezte hemen eta egon atzarririk nerekin batean" Aintzinaxago joanik, erori zen begitartez lurrerat, eta otoitzean ari zen, erranez: "Ene Aita, ahal bada, urrunt bedi ni ganik kalitza hau. Bizkitartean, ez nik nahi bezala, baina zuk nahi bezala" Gero heldu da bere dizipuluetara, eta kausitzen ditu lo, eta erraiten dio Petriri : "Beraz, ez zirezte egon ahal izan oren bat atzarririk ? Zaudezte atzarririk eta otoitz egizue, tentamendutan ez sartzeko: gogoia suhar, ahul adiz haragia."

Berriz ere, bigarren aldikoz joan-eta otoitz egin zuen, ziolarik: "Ene Aita, kalitza hau ez baditake iragan nik edan gabe, egin bedi zure nahia". Gero etorri zen, eta berriz lo aurkitu zituen, heien begiak eroriak ziren. Heiek utzirik, berriz ere joan zen, eta otoitz egin zuen hirugarren aldikotz, hitz berak erranez. Orduan heldu da dizipuluetarat eta erraiten diote : "Lo egizue bada eta pausa zaitezte. Huna tenorea hurbildua eta gizonaren Semea emana izanen da bekatorosen eskuetarat. Jeiki zaitezte, goazen. Hurbil da ni saltzen nauena."

22

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken iiburutik 15,33-39

Egun hartan, eguerdi irian, ilunbea egin zen lur guziaren gainean hiruak arteraino. Eta hiru orenetan, Jesusek oihu handi batean erran zuen "Eloi, Eloi, lama zabaktani." erran nahi baita "Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu ? " Han ziren etarik batzuek, hori entzutearekin, zioten: "Horra non Eli profetari ari zaion oihuka." Gizon bat joan zen lasterka, mustuka bat ozpin-urez bustitzerat, eta kanabera baten muturrean ezarriarik, edaterat emaiten zion erranez : "Hea, ikus. Eli etorriko zaionetz hortik jausterat." Bainan Jesusek oihu bat eginik, eman zuen azken hatsa. Tenploko oihala erditik urratu zen, gainetik beheraino. Jesusen aintzinean zagon ehuntariak, ikusi zuelarik nola hil zen, erran zuen : "Zinez gizon hau Jainko seme zen.

Larunbata iragan zenean, Maria Madalena, Maria Jakesen ama eta Zalome izan ziren usin gozoen erosten Jesusen gorputza gantzutzeko. Goizeangoizik, asteko lehen egunean, joan ziren hobirat, iguzkia agertu orduko . Elgarri zioten : "Nork aldaratuko dauku harria hobiaren ahotik ? Begiak altxa-turik, ohartu ziren aldaratua zela harria, alta gaitzekoa zen. Hobian sarturik orduan, ikusi zuten gizon gazte bat eskuinetarik jarria, soineko xuriz jauntzia, eta harritu ziren. Hunek erran zioten : "Ez ikara. Jesus Nazaretarra bilatzen duzue, kurutzean itzatu hura : piztua da, ez da hemen, huna nun zuten ezarria.

23

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik 23,44-49

24,1-6

Jadanik eguerdi zen nunbeit han, eta ilunbea egin zen lur guziaren gainean hiruak arte, iguzkia gorderik. Temploko oihala erditik urratu zen. Orduan Jesusek oihu handi batean erran zuen: "Aita, zure eskuetan emaiten dut ene izpiritua." Eta horiek erraitean, eman zuen azken hatsa. Ehuntariak, gertatu zena ikusirik, Jainkoa goretsi zuen, erranez : "Egiazki zuzena zen gizon hau." Han bilduak ziren ikusle guziak, gertatuak ikusirik, bazoatzin bularrak joz. Jesusen ezagunak aldiz urruntxago zauden, eta ere Galileatik jarraitzen zitzaizkon emazteak, han beha zaudenak.

Astearen lehenbiziko egunean, goizean goizik, hil hobirat joan ziren emazteak, prestatuak zauzkatzen gantzuz usain gozodunak hartu eta. Harria hil hobitik baztertua aurkitu zuten. Sartu ziren, eta Jesus Jaunaren gorputza ez zuten han aurkitu. Zer ote zitaken ez zakitelarik, hara bi gizon heien aintzinean, soinekoak dirdiran. Emazteak ikaraturik, eta begia begiak lurrerat so

baitzauden, heiek erran zioten : "Zer zabil-tzate, hilen artean bizi denaren bila ? Ez dago hemen, piztu da. Orroitzazte Galilean zagolarik erran dautzuen.

24

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Luken liburutik 24,13-35

Egun berean, bi dizipulu bazoatzin Emauz deitu herrixka batetarat, Jerusalemetik bi orenen bidean. Eta elgarrekin mintzo ziren gertatu guziez. Solasean eta eztabadan ari zirelarik, Jesus bera hurbildu zitzaizoten, eta bazoan heiekin batean. Bainan heien begiak itsu zauden, eta ez zuten ezagutzen. Jesusek erran zioten "Zertaz mintzo zinezten bidean ? Zoin ilun zirezten ." Heietarik batek, Kleofas deituak, ihardetsi zion: "Jerusalemen zirenetarik segur bakarra zira egun hautako gertakarien berri ez dakiena." Erran zioten : "Zer ote?" Heiek orduan : "Jesus Nazaretarrari gertatua : gizon hori profeta bat zen, obraz eta elez indartsua, Jainkoaren eta populu guziaren aintzinean. Apez nausiek eta gure aintzindariak eman dute hiltzerat kondenatzeko, eta kurutzefikatu dute. Guk aldiz, baginuen ustea hura zela Izrael libratu behar zuena. Bainan, horiek hola, hirugarren eguna da horiek gertatu direla. Haatik gutarteko emazte batzuek harritu gaituzte: argia gabe hobirat izan dira. Eta haren gorputza ez kausitu; bai eta etorri, erranez agertze bat ukan dutela : aingeruak ikusi, Jesus bizi dela baitzioten. Joan dira gurekilako batzu hobirat, bai eta kausitu emaztek erran bezal-bezala, bainan hura ez ikusi." Jesusek orduan erran zioten : "Oi zentzu gabeak ! Zoin nagia den zuen bihotza profetek aipatu guzien sinesteko . Kristok ez zituena bada horiek oro jasan behar, bere ospean sartzeko ?" Bai eta Moisetik haste, eta profeta guzietarik argitaratu ziozkaten Liburu saindu guzietan hartaz erranak. Zoatzin herrixkarat hurbiltzean, Jesusek egin zuen alegia eta aintzinat joaiki. Bainan geldiarazi beharrez ari ziren, erranez: "Zaude gurekin, iluntzerat baitoa, eta eguna jadanik apaldua. " Sartu zen orduan heiekin egoiteko. Heiekin mahainean jarri zelarik, ogia hartu zuen, eskerrak bihurtu eta, zatitu zuen, eta heieri eman. Begiak ideki zitzaizkoten, orduan ezagutu baitzuten, eta hura itzali zitzaizoten. Elgarri erran zuten orduan : "Ez ginuena gure baitan bihotza sutan, bidean mintzo zitzaikularik, eta Liburu sainduak argitzen zauzkularik ?" Eta xutiturik, ordu berean itzuli ziren Jerusalemerat : han bilduak kausitu zituzten hameka apostoluak eta heiekilakoak, ziotela : "Jauna egiazki piztu da eta agertu zaio Zimuni." Eta heiek kondatu zituzten bidean gertatuak eta nola ezagutu zuten, ogia zatitu zuenean.

25

Asteko lehen egunean, Maria Magdalena etorri zen hobirat goizean goizik, iluna zelarik oraino. Ikusi zuen hobitik kendua zela harria. Lasterka joan zen beraz Zimun Petriren eta Jesusek maiten zuen bertze dizipuluaren ganat. Eta erran zioten : "Jauna kendu dute hobitik, eta ez dakigu non eman duten ." Petri atera zen beraz, bai eta bertze dizipulua, eta joan ziren hobirat. Biak elgarrekin lasterka zoatzin, bainan bertze dizipulua Petri baino lasterrago joan zen, eta lehena heldu hobirat. Ukurtuz, ikusi zituen oihalak lurrean ezarriak, ez zen haatik sartu. Etorri zen ere Zimun Petri haren ondotik : sartu zen hobian, eta ikusi zituen oihalak lurrean ezarriak, bai eta buruan zen hil mihisea. Hau ez zen oihalekin, bainan plegatua eta berex ezarria. Orduan sartu zen ere bertze dizipulua, hobirat lehenik etorria zen hura. Ikusi zuen eta sinetsi. Alabainan ez zuten oraino konprenitua Liburu sainduek errana, hiletarik behar zela piztu. Orduan dizipuluak joan ziren beren etxerat.

AZKEN KOMINIONEKO MEZAREN IRAKURGAIK

	1	
Erregeen lehen liburutik		19,4-8
	ikus p. 35	
	2	
Jondoni Paulok Kotintiarri		Ia.11,23-26

Haurrideak, Jaunaren ganik ikasia dut erakatsi dautzu-etana : Jesus Jaunak, saldua zen gau hartan, hartu zuen ogia, eta eskerrak emanez, zatitu zuen eta erran : " Hau nere gorputza da, zuentzat emana. Hou egizue nere orroitgarri ." Halaber, afal ondoan kal itza hartu zuen, erranez : " Kalitza hau Batasun berria da ene odolean . Edanen duzuen aldi oroz, egizue hau nere orroitgarri ." Beraz, ogi hau jaten , eta edari hau edaten duzuen aldi oroz, Jaunaren heriotzea aipatzen duzue, bera etorri arte .

SALMOAK

22gn salmoa

33gn salmoa ikus p. 54

41-42gn salmoa ikus p. 55

115gn salmoa

Alleluia Ni naiz ogia, dio Jaunak,
 Ogi bizia zeruetarik etorria,
 Hau jaten duten fededunak
 Biziko dire betiere.

Edo

Ni naiz bidea, egia, eta ni bizia :
Aitaren ganat doanik ez da nitaz baizik .

Egun hartan, Juduak marmarikan ari ziren Jesusentzat, erran zuelakotz : " Ni naiz zerutik jautsi ogia ."
 Erraiten zuten : " Ez ote da hori Jesus, Josepen semea ? Ezagutzen ditugu horren aita-amak. Nolaz dio orai zerutik jautsia dela ?" Jesusek ihardetsi zioten : " Ez ar marmarika zuen artean. Nehor ez ditake ni ganat etor, non ez duen ni igorri nauen Aitak erakartzen ; eta nik piztuko dut azken egunean . Profetetan izkiriatura da : Jainkoa izanen dute denek argitzaile . Aita entzun-eta , haren erakaspene hartzen duena, hura heldu da nere ganat. Ez haatik norbaitek ikusi duela Aita ; Jainkoaren ganik heldu denak bakarrik, horrek du ikusi Aita. Egiaz, egiaz derautzuet, nitan sinesten duenak betiko bizia dauka. Ni naiz biziaren ogia . Zuen aitek basamortuan mana jan zuten, eta hil dira . Hauxe da zerutik jausten den ogia, huntarik jaten duena ez dadien hil. Ni naiz ogi bizia zerutik jautsia. Ogi huntarik jaten duena biziko da betiere . Eta nik emanen dutan ogia nere haragia da, munduaren bizitzerako ."

Egun hartan, Jesusek erran zioten : " Ni naiz ogi bizia, zerutik jautsia. Ogi huntarik jaten duena biziko da betiere. Eta nik emanen dutan ogia nere haragia da, munduaren bizitzerako." Juduak elgarrekin eztabadan ari ziren, ziotela : " Nola diezaguke hunek bere haragia jaterat eman ?" Orduan Jesusek erran zioten: " Egiaz, egiaz derautzuet. Ez baduzue jaten Gizonaren Semearen haragia, eta edaten haren odola, ez duzue bizia zuen baitan . Nere haragia jaten, eta nere odola edaten duenak, badu betiereko bizia ; eta nik piztuko dut azken egunean. Alabainan, nere haragia egiazko janaria da, eta nere odola egiazko edaria. Nere haragia jaten duena eta nere odola edaten, ni baitan dago, eta ni haren baitan . Bizia den Aitak ni igorri nauen bezala, eta ni Aitaz bizi naizen bezala, halaber, ni jaten nauena nitaz biziko da. Hau da zerutik jautsi ogia : ez zuen aitek jan zuten bezalakoa, hil baitziren ; ogi hau jaten duena biziko da betiere ."